# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia — Iruñean, 1998ko ekainaren 16an — 44 ZK.

**A U R K I B I D E A**

A SAILA:
**Foru Lege Proiektuak:**
—Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua, Osoko Bilkurak baztertutako osoko emendakinak (3. or.).

B SAILA:
**Foru Lege Proposamenak:**
—Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

E SAILA:
**Jabeldurak eta Mozioak:**
—Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak "Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna" berretsi du. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Esteribarrean Magenistas de Navarra S.A. enpresatik heldu diren partikulei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Lekunberriko industrialdeko hodi biltzailea Mugiroko araztegiarekin lotzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

G SAILA:
**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**
—Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuegoari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina (12. or.).

H SAILA:
**Bestelako Testu Arauemaileak:**
—159/1998 Foru Dekretua, maiatzaren 4koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (29. or.).

I SAILA:

**Parlamentuko Jarduera:**

—1998ko otsailean egindako bilerak (30. or.).
—1998ko otsailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (32. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua

*OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO EMENDAKINAK*

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 4an egindako bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» eta «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeek Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko Osoko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**B Saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen. Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Foru Lege proposamena bazter uztea.

Proposamen hori 1998ko apirilaren 29ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguia

**E saila:**
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

# Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak "Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna" berretsi du

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

1998ko ekainaren 5ean Osoko Bilkurak ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak "Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna" berretsi du". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak "Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna" berretsi du

Nafarroako Parlamentua atxiki egiten zaio Senatuak 1998ko martxoaren 24an eginiko bilkuran onetsi zuen erabakiari; erabaki horretan Espainiako Gobernua premiatu egiten da, beti ere autonomia erkidegoek beren hizkuntza propioekiko dituzten eskumenak errespetatuta baita ere, beraz, Nafarroako Foru Komunitatearenak, sendets dezan Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna, aipatutako erabakian Senatuak eginiko modu berean.

**F saila:**
**GALDERAK**

# Esteribarrean Magenistas de Navarra S.A. enpresatik heldu diren partikulei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Esteribarrean Magenistas de Navarra S.A. enpresatik heldu diren partikulei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Esteribarren Magnesitas Navarras S.A. enpresatik heldu diren partikulei buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidali du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Zein da ukitutako herrietan 1996 eta 1997 urteetan partikula jalkigarri horien urteko batezbestekoa metro karratuko eta eguneko, miligramotan? Zeintzuk dira gehienezko neurketak?

Esteribarren 1996an eta 1997ko lehen seihilabetekoan zehar eginiko partikula jalkigarrien neurketen emaitzei buruzko Osasun Publikoaren Institutuaren txostenak honako datu hauek agertzen ditu:

Partikula-kontzentrazioa (eguneko mg/m$^2$-tan)

| | Batezbestekoa | Gehienekoa | Gutxienekoa |
|---|---|---|---|
| Zubiri 1996 | 728,97 | 2.101,98 | 127,31 |
| Zubiri 1997 | 495,78 | 962,25 | 88,25 |
| Ilarratz 1996 | 284,70 | 793,49 | 16,44 |
| Ilarratz 1997 | 392,06 | 571,85 | 253,64 |
| Urdaitz 1996 | 305,77 | 763,88 | 59,22 |
| Urdaitz 1997 | 376,03 | 631,63 | 95,58 |

Hauts-emisioek osasunean eragiten dituzten ondorioetarako parametro esanguratsuago gisa suspentsioan dauden partikulak har daitezke. Parametro hori zehazteko, Zubirin kaptadore grabimetriko bat jarri zen, Esteribarreko Udaletxearen ondoan.

Suspentsioko partikulen kontrol hauen emaitzak honakoak dira:

– Batezbesteko kontzentrazioa: 89,12 µg/m$^3$N.
– 95 Pertzentila: 217µg/m$^3$N.
– Gehieneko balioa: 412 µg/m$^3$N.
– Gutxieneko balioa: 10µg/m$^3$N.

Metodo grabimetrikoaren bitartez zehazturiko "partikulak suspentsioan" parametrorako legezko erreferentziazko balioak, abenduaren 30eko 1321/1992 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, honakoak dira:

– Batezbesteko kontzentrazioaren muga-balioa: 150µg/m$^3$N.
– 95 pertzentilaren muga-balioa: 300µg/m$^3$N.

Lorturiko emaitzak legedian suspentsioko partikuletarako ezarritakoak baino txikiagoak dira nabarmenki. Kutsagai horrek kalte garrantzitsuak eragiten ditu osasunean, muga-balioak gainditu egiten baldin badira.

2.- Urteko zein alditan eta zein herritan dira neurriak legez ezarritakoa baino altuagoak?

Ukituriko herrietan gehieneko mailak honako epe hauetan gainditu ziren:

Zubiri

1996 urtea: urtarrilaren 13tik ekainaren 21era bitartean;
irailaren 21etik urriaren 11ra bitartean;
urriaren 26tik abenduaren 20ra bitartean.

1997 urtea: urtarrilaren 4tik otsailaren 21era bitartean;
apirilaren 18tik maiatzaren 9ra bitartean.

Ilarratz

1996 urtea: urtarrilaren 27tik otsailaren 16ra bitartean;
apirilaren 3tik apìrilaren 19ra bitartean;
irailaren 21etik irailaren 27ra bitartean;
urriaren 26tik azaroaren 8ra bitartean;
azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitartean.

1997 urtea: urtarrilaren 1etik martxoaren 21era bitartean;
apirilaren 18tik maiatzaren 9ra bitartean.

Aztergai den epea maiatzaren 30ean bukatu zen.

Urdaitz

1996 urtea: martxoaren 2tik martxoaren 22ra bitartean;
apirilaren 3tik apirilaren 19ra bitartean;
urriaren 5etik urriaren 11ra bitartean;
urriaren 26tik abenduaren 20ra bitartean.

1997 urtea: urtarrilaren 4tik urtarrilaren 31ra bitartean;
otsailaren 22tik maiatzaren 9ra.

Aztergai den epea maiatzaren 30ean bukatu zen.

3.- Nafarroako Gobernuak ikerketarik-edo egin al du edo egiteko asmorik ba al du jakiteko zein eragin kaltegarri izan ditzakeen egoera honek ukitutako herrietan (populazioa, azienda, nekazaritzako lurrak...)?

Osasun Publikoaren Institutuak eginiko txosten batean adierazten denez, eskura dauden datuen eta kontsultaturiko nazioarteko hainbat osasun-erakundek argitaratutako dokumentazioaren arabera, magnesio-oxidoa eta karbonatoa ez dira zehazki toxikoak eta ez daude sartuta Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) eginiko industri hauts arriskutsu nagusien zerrendan.

Partikula jalkigarriek kontzentrazio oso handitan osasunean izan ditzaketen eragin inespezifikoak, kontsultaturiko dokumentazioaren arabera, honako hauek dira:

– Narritadura arinak arnas-bide altuetan, eztula, dominstikuak eta abar.

– Begietako, sudurreko eta bestelako mukosen narritadurak, malko-jarioa, begi-gorritzea, azkura.

Kontzentrazioak eta jasanaldia oso garrantzitsuak baldin badira bakarrik -eginiko neurketetan zehaztutakoak baino askoz ere haundiagoak- gerta litezke biriketako eritasun inespezifikoaren sintomak, babes- eta garbiketa-sistema fisiologikoen gaineko zama haundiegia izateagatik.

Esteribarren jarduten duen Uharte-Iruñeko Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeari kontsulta egin ondoren, populazioaren osasunean atmosferako egoerari egotz dakiokeen inolako ondorio egiaztaturen berririk ez dute ematen.

Oihan arloko Esperimentazio eta Osasunaren Bulegoak joan den uztailaren 30ean eginiko txosten batean adierazten da azterraldian (1988tik 1996ra bitartean) ez dela kalte-mailarik detektatu, 1995ean kalte mistoko (dekolorazio-defoliazio) maila moderatua izan bazuen ere, oso zaila izanik hosto-dekolorazioaren agerpenak kutsadurari egoztea.

Zelaien azpian aurkitzen diren lurren analisien emaitzek, Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, S.A.-k emanikoek, alkalinizazio arin bat agertzen dute emisio-gunetik hurbil edo hegoaldera dauden lurretan, emisio-gunetik urrundu ahala gradientea negatiboa izanik, eta emisio-guneari erraz egotz lekiokeena.

Eskura dauden datuekin ezin daiteke ondorioztatu kalterik izan denik, hosto-estalpeneko eraginak bakarrik egon baitira, eta, beraz, landarearen gas-elkartrukea zaildu egiten da, horrek hazkuntzan eragina izanik.

Gaur egun, Magnesitas Navarras ikerketa-proiektu batean ari da parte hartzen, Pirinioetako Lan Komunitatearen Lankidetzarako proiektuen barnean, Nafarroako Unibertsitatearekin, Toulouse-ko Eskola Politeknikoarekin eta Instituto Técnico de Gestión del Vacuno-rekin batera. Proiektuak honela izena du: “Pirinioetako ekosistemen gaur egungo egoera eta kontserbazioa. Kutsaduraren eragina eta zuzenketarako neurriak proposatzea”. Proiektu horrek aurreikusten du zona horretan dauden lurzoru-mota ezberdinetan kutsadurak duen eragina aztertzea, hala nola zuzenketarako balizko neurriak.

4.- Zein neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, bidezko jarduketak erabiliz, aipatu herrietan atmosferako partikulen kopurua murrizteko?

Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro Departamentuaren bitartez eta eskura dituen legezko mekanismoak erabiliz, Magnesitas Navarras-i zuzenketa-neurriak har ditzala galdatuz tinko jardun du, bertako instalazioak indarreko ingurugiro-araudiari (besteak beste, Atmosferako Ingurugiroa Babesteko Legea eta horrekin bat datozen xedapenak) egokitzeko.

Eskaera horien ondorioz, eta enpresa gisa bideragarritasuna eta iraupena ziurtatu ondoren, 1992an txosten bat egin zuen Magnesitas Navarras-ek, aurreragoko (1986) proiektu batean oinarrituz, bere industri instalazioen ingurugiro-eraginari buruzkoa. Horretan, bere jarduerak sorturiko ingurugiro-problematika modu sinplifikatuan jaso-

tzen da, hala nola hori konpontzeko hartu nahi diren zuzenketa-neurriak eta jarduketa-egutegi bat, epe labur, ertain eta luzera, horien zenbatespen ekonomikoarekin. Zehazki, atmosferara eginiko emisioei dagokienez, hauts-kentze jarduketetarako (1992-96 eperako aurreikusiak) 337 milioiko inbertsioa estimatzen da.

Nafarroako Gobernuari dagokionez, laguntzak eskaini zituen, egin beharreko inbertsioetarako dirulaguntzetan gauzatuak, Kutsaduraren Aurkako Inbertsioetarako Laguntzei buruzko Erregelamendua onesten duen irailaren 16ko 4/1982 Foru Dekretuaren babesean.

Plan horren ondorioz, hainbat emisio-gunetan partikula-emisioak amaiarazi egin dira aipaturiko epean zehar, kaptazio-, kanporatze- eta iragazte-sistemak jarriz, bitarteko mekanikoen bidezko garraioa (zamalan-palak) kenduz eta zinta garraiatzaileak karenatuz.

Kiskaltze-labeak dira atmosferara partikula gehien emititzen dutenak, eta partikulak deuseztatzeko problemarik handiena magnesio-sulfatoen eraketa da, konbustio-gasetan aurkitzen diren sufre-oxidoen eraginez; gas horietan ur-lurrina egoteak haiek hidratatzea ekartzen du ondorio gisa, eta ondoren hautsa kentzeko instalazioetako gailuen gain hori gogortzea eragiten dute, instalazio horiek epe laburrean erabat hondatuta utziz. Horren ondorioz, aipaturiko 1992ko txostena baino lehenago jarritako hautsa kentzeko instalazioek ez dute espero zen arrakasta izan. Honek behartu zuen hartu beharreko neurriei buruzko azterlan oso zorrotza bat egitera.

Horren ondorioz, lehenengo fase batean, 1993/94 epean, partikulak multizikloi-baterien bidez deuseztatzeko sistema bat instalatu zen bi labeetan. Emisioak neurri handi batean murriztu zituzten, baina hala eta guztiz ere emisio-mailak indarreko araudiak baimentzen zuen gehienekoa baino askoz ere altuagoa izaten jarraitzen zuen. Hautsa kentzeko tratamenduaren konplexutasun berezia -lehen aipaturikoa- zela-eta, 1995ean zehar labeetako keak iragazteko instalazio piloto bat eraiki zen, eta bertan saiakuntzak egin dira material- eta sistema-mota ezberdinekin, eraginkorra den eta funtzionamendu-bermea duen iragazte-sistema bat definitzea ahalbidetuz, material iragazlearen arloan merkatuan dauden azken berrikuntzak erabiliz.

Saiakuntza horien lorpen gisa, eta probetan izandako emaitzak ikusirik, gaur egun mahuka bidezko iragazki bat instalatzen ari dira 3. labeko gas-aterabidean, baita tximinia berri bat eta kanporatze-sistema bat ere. Sistema berri hori abiaraztea datorren abendurako aurreikusten da; horrela, partikula-emisioaren mailak legeak labe honetarako ezartzen duen gehienekoaren azpira jaitsiaraziko dira.

Espero den bezala, instalazio horren emaitzak behar bezalakoak baldin badira, datorren urteko lehendabiziko hilabeteetan ezaugarri berberak dituen kea arazteko sistema bat 2. labean ezartzea aurreikusi da. Urte hori amaitu aurretik jarriko litzateke martxan; horregatik, datorren urtearen bukaerarako partikulen ondorioz Esteribarrek duen kutsadura-problema behin betiko konpondu-ta geratzea espero da.

1992/96 epean zehar Magnesitas Navarras-ek atmosfera-kutsadura murrizteko instalazioen kontzeptupean eginiko inbertsioak 484.540.123 pezetakoak dira, eta Nafarroako Gobernuaren hainbat dirulaguntza izan ditu; zehazki, guztira 162.897.515 pezetakoak; hau da, inbertsioaren % 33,6.

Aurten, kontzeptu bererako aurreikusten diren inbertsioak 178.796.686 pezetakoak dira, eta horietatik 143.963.900 pezeta mahuka bidezko iragazkia instalatzeko dira.

Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

# Lekunberriko industrialdeko hodi biltzailea Mugiroko araztegiarekin lotzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Lekunberriko industrialdeko hodi biltzailea Mugiroko araztegiarekin lotzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Lekunberriko industrialdetik Mugiroko araztegira eginiko balizko isurketei buruz "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentaria den Pedro Úriz Lanz jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidali du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Aurretiko ikerlanik egin al da Lekunberriko industrialdeko hodi biltzailea Mugiroko araztegiarekin lotu baino lehen?

Lekunberriko Industrialde berria udal saneamendu-sarearekin lotzean, bost enpresa ari ziren jardunean. Horietatik, bakar batek (fruta-zukuak egiten dituena) sortarazten zituen industriako hondakin-urak, hondakin-ur beltzez bestelakoak.

Lekunberriko udalerriko araztegiaren proiektua idazteko asmoz egin zen aurretiazko azterlanean, enpresa horrek bere jarduera-baimenean ezarritako baldintzei jarraituz isuritako industriako zein hondakin-ur beltzei dagozkien datuak jadanik kontuan hartuak izan ziren.

Industrialdean kokaturiko gainontzeko enpresek hondakin-ur beltzak bakarrik sortzen zituzten, eta horiek ere kontuan hartu ziren Lekunberriko araztegiaren proiektua idaztean.

2.- Lekunberriko industrialdeko enpresa berriek ba al dute Ingurugiro Departamentuaren baimena hondakinak Larraun ibaira isurtzeko?

Jarduera Sailkatuak Kontrolatzeko Foru Legeak dioenez, Toki Entitateak dira sailkaturiko edozein jarduera instalatzeko aurretiazko baimena, jarduera-baimena deritzona, ematen dutenak.

Industriek aurkeztutako jarduera sailkatuen proiektuari buruzko derrigorrezko txostena egiten du Departamentuak, baina horren ondorioz jarduera-baimena ukatzen denean edo neurri zuzentzaileak ezartzen direnean bakarrik izanen da loteslea udalerriko agintarientzat.

Horrekin batera, eta Urari buruzko 1985eko abuztuaren 2ko 29/1985 Legea garatzen duen Ur Jabari Publikoari buruzko Erregelamenduak dioenez, hondakin-urak ubide publiko batera isurtzeko beharrezkoa izanen da Estatuko Administrazioko kasuan kasuko Arro Erakundeak emandako administrazio-baimena.

Edonola ere, Lekunberriko Industrialdean kokaturiko enpresetako bakar batek ere ez dauka baimenik hondakin-urak zuzenean Larraun ibaira isurtzeko; hori, Lekunberriko udal sarearen gainerakoari lotuta dagoen Industrialdeko saneamendu-sarearen bitartez egin behar dute.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, indarrean dagoen Jarduera Sailkatuak Kontrolatzeko Foru Legeak ezarri bezala, enpresa horien hondakin-urak udal-sarera bideratzearen aldeko txostena egin du, Lekunberriko Udalari eskaturiko jarduera-baimenaren izapidatze-prozesuan. Saneamendusarearen titularra den udal horrexek berak eman du jardueraren instalazioaren aurreko administrazio-baimena.

3.- Zein kontrol egiten da Lekunberriko industrialdearen hondakinen gainean?

Lekunberriko Industrialdean kokaturiko enpresek sorturiko eta hiri-hondakinekin parekagarriak diren industria-hondakinak, Leitza-Larraun Mankomunitateko zerbitzuek jasotzen dituzte. Mankomunitate horrek kudeatzen ditu aipaturiko hondakinak, eta Iruñerriko Mankomunitateko Hiri Hondakin Solidoak Tratatzeko Zentrora eramaten ditu. Enpresek entitate horiei hondakinak ematen dizkiete, kudea ditzaten, eta entitate horiek, beren eskumenak erabiliz, hondakinak kontrolatzeko erantzukizuna hartzen dute.

Indarreko araudiari jarraituz, kontrol eta jarraipenerako berariazko araubidea aplikatzekoa daukaten industria-hondakin bakarrak, araudi

horrek hondakin toxiko eta arriskutsu gisa sailkaturikoak dira; foru araudiak "hondakin berezi" deitzen ditu.

Lekunberriko Industrialdean kokaturiko hainbat industriak mota horretako hondakinak sortzen dituzte, kopuru txikitan izan arren, hala nola disolbagarriak, erabilitako olioak eta abar; horregatik, horri buruz araudiak ezartzen dituen betebeharrak bete behar dituzte.

Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko Erregelamenduak (uztailaren 20ko 833/88 Errege Dekretua, ekainaren 20ko 952/97 Errege Dekretuak aldatua) ezartzen du beharrezkoa dela "Kontrol eta Jarraipenerako Dokumentua" deritzona formalizatzea, produzitzaileak mota horretako hondakinak entregatzen dizkionean baimenduriko kudeatzaile bati.

Aurrekoaren osagarri gisa, kudeatzaileari entregaturiko kopurua 200Kg baino txikiagoa baldin bada, uztailaren 29ko 195/96 Foru Dekretuak kontrolerako araubide sinpleztatua ezartzen du: horrek ere behartzen du kudeatzailea "Jasotzea Kontrolatzeko Dokumentua" eta "Entrega Ziurtagiria" deituriko dokumentuak betetzera.

Bi kasu horietako edozeinetan, Ingurugiro Departamentura aipaturiko kontrol-dokumentuen kopiak bidaltzen dira; horregatik, enpresa sortzailea, baimenduriko kudeatzailea eta garraiatzailea (halakorik dagoenean) identifikatzeko datuen konstantzia badago, eta eskualdatzen den hondakinaren datuena ere bai: izaera, arrisku-mailaren kodeak, kopurua, egoera fisikoa eta abar.

4.- Zein eragin du industrialdeko enpresek ura hartzeak Larraun ibaiak eraman behar duen emari ekologikoan?

Lekunberriko ura, bai hiri-erabilerarakoa bai industriarakoa, zuzenean Aitzarretako iturburutik hartzen da. Iturburu hori Ercilla ibaiaren jatorria da, ez Larraun ibaiarena, bien arteko harremana agerikoa izan arren, bereziki ur ugariko sasoian.

Horrela, Ercilla ibaiaren urak, isurbide natural batera iristean, galdu egiten dira guztiz, eta ehundaka metro aurrerago, ibaian beherantz, zehazki Iribasen, berragertzen dira eta osatzen dituzte Larraun ibaia sortuko duten iturburuak, askoz ere ur-emari handiagoa daukatenak.

Ercillako urak Larraunera biltzeak eragin berezia dauka eurien garaian, Aitzarreta iturburuaren ur-emaria handia denean (milaka metro kubiko segunduko), baina ez da nabaritzen agorraldian, aipaturiko iturburuaren ur-emaria segunduko litro gutxi batzuetara jaisten baita, are behin edo behin Lekunberriko hornidurari arazoak sortzerarte.

Horrek guztiak esan nahi du agorraldian, hau da, emari ekologikoa suertatzen denean (200 bat l/s), Larraun ibaiaren ekarpen ia guztia Iribaseko iturburuetatik datorrela, ez Aitzarretatik, eta azken honetan dago kokaturik Lekunberrirako horniduraren hartunea.

Beraz, Lekunberriko Industrialderako hartuneak, 4,83 l/s-koa izanik, ez dio garrantzizko murriztapenik egiten Larraun ibaiaren emari ekologikoari, batez ere, kontuan hartzen baldin bada eskatzen den uraren %70 ibaira isurtzen dela erabili ondoren.

5.- Irailaren 2ko 309/96 Foru Dekretuaren bidez Arakil ibaian salmonidoen arrantza antolatzeko Plana onetsi zen. Noraino betetzen ari da Plan hori Lekunberriko Industrialdeko hondakinen isurketa horiekin?

6.- Ingurugiroan zein eragin kaltegarri izaten ari da une honetan Larraungo araztegiak ez funtzionatzea behar bezala? eta, zehazki, zein eragin izanen du horrek Plan hori betetzeko orduan?

Urtero, Arakil Ibaiaren Arroko Salmonidoen Hazkuntzarako Antolamenduari buruzko Planaren jarraipena egiteko, amuarrain-populazioaren egoera aztertzen da, ekainetik irailerako tartean buruturiko lagin-hartze baten bitartez. Amuarraina da Larraun ibaiko salmonido bakarra.

Azken hiru urteotan (1995, 1996 eta 1997ko lagin-hartzeen kanpainak) lorturiko emaitzek ez dute agertzen, momentuz, Larraun ibaiaren goi aldeko amuarrainen populazio-egiturak inolako kalterik jasan duenik.

Zehazki, aurten, 1997an, Larraun ibaian buruturiko lagin-hartzearen emaitzek, Lekunberriko araztegiak isurketak egiten dituen puntutik ibaian behera, hauxe agertu dute: amuarrain-dentsitate normala, arrainkume-dentsitate apala, errekklutamendu-tasa normala, gazte-dentsitate altua eta ugalketarako gaitasun altua. Emaitza horiek ibaiaren zati honetan aurreikus zitezkeenak dira, aurreko urteetako emaitzak eta Nafarroako gainontzeko ibaietan 1997an zehar somatu den joera orokorra kontuan hartuz.

Azken batean, eta hiri-araztegi bateko hondakin-urak isurtzeak ingurune hartzaileko uren kalitatean izan dezakeen unean uneko eragin ekidinezina alde batera utziz, orain arte, Lekunberriko araztegiko hondakin-urak isuri izanak ez du kaltetu aipaturiko Arrain Hazkuntzarako Antolamenduari buruzko Planeko helburuen lorpena.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

# Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuegoari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuegoari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, argitara dadila agintzea.

Iruña, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuegoari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (12. or.).

**II.** Helburua (13. or.).

**III.** Norainokoa eta mugak (13. or.).

**IV.** Iritzia (14. or.).

**V.** Egoera finantzarioak: 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzea (16. or).

**VI.** Iruzkinak, ondorioak eta alderdirik adierazgarrienei buruzko aholkuak (17. or.).

VI.1. 1996ko aurrekontuaren kitapena (17. or.).

VI.2. Antolakuntza eta alderdi orokorrak (17. or.).

VI.3. Langileria (18. or.).

VI.4. Sarrerak (20. or.).

VI.5. Administrazioko kontratazioa (21. or.).

VI.6. Partzuergoaren eskuhartzeak 1996an (22. or.).

VI.7. Plan Zuzentzailearen jarraipena (22. or.).

**Eranskinak:**

1. eranskina: Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoko partzuergoburuak aurkeztu dituen alegazioak (23. or.).

2. eranskina: Javier Sebastián Romero jaunak, 1996an Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoko zuzendaria zenak aurkeztu dituen alegazioak (24. or.).

### I. SARRERA

Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuegoa (hemendik aurrera Partzuergoa izanen dena) administrazioko ente publikoa da eta ezarri zaizkion helburuak betetzeko nortasun eta gaitasun juridikoa du.

1990eko abenduaren 20an Nafarroako Gobernuak arestian aipatu den Partzuergo horren Estatutuak onetsi zituen eta eraketan Nafarroako Gobernua bera eta Iruñeko Udala daude (hasieran Tuterako Udala ere sartzea aurreikusita zegoen).

Estatutuetan ezarri denarekin bat, Partzuergoaren xedea suteen itzalketa eta salbamendu zerbitzuaren kudeaketa zuzena da; zerbitzugintza horretan ondoko hauek bilduko dira:

• Suteak itzaltzea.

• Era guztietako ezbehar eta arrisku egoerak daudenean, pertsona eta ondasunen babesa eta salbamendua.

• Zentro eta lokal publikoetan eta, hala denean, pribatuetan, segurtasunaren alorrean aholkularitza eta laguntza ematea.

Partzuergoaren organo zuzentzaileak hauek dira:

• Partzuergoaren Zuzendaritza Kontseilua; horren betebeharrak, besteak beste, ondoko hauek dira: aurrekontuak onestea eta likidatzea; kontuen, kreditu eragiketen, plantila organikoen eta obra eta zerbitzuen proiektuak onestea.

• Partzuergoburuak, batez ere zerbitzu teknikoak eta administraziozkoak antolatu behar ditu, baita kontratazioak egin, kudeaketa ekonomikoa burutu, langileria izendatu eta ordainketak agindu ere.

• Zuzendariari dagokion betebeharra; funtsean, ondokoetan datza: goragoko organoetan erabakitzen dena betearaztean, langileburu izatean, zerbitzuen koordinazioa egitean eta aurrekontuen aurreproiektua gertutzean.

Sinatu zuten alderdiek Partzuergoaren eskuetan utzi zituzten desagerturiko suteen aurkako zerbitzuen ondasun higigarri eta higiezinak, baita lan hori egiten zuten funtzionarioak ere –horiek jatorrizko administrazioetan geratuko dira zerbitzu berezien egoeran–, baina euren berariazko gizarte-onurak gordetzen zaizkie. Egoera honen ondorioz laneko harremanak hiru motakoak dira, horietariko bakoitzak berezitasunak eta araubide zehatza dituela:

• Jatorriz Nafarroako Gobernuarenak diren funtzionarioak.

• Jatorriz Iruñeko Udalekoak diren funtzionarioak.

• Partzuergoarena den langileria (batez ere aldi baterako langileak).

Barneko araubideari dagokionean, Estatutuetan ezarri denaren arabera jardunbidea artean onetsi gabe dagoen barne araubideko araudiaren bidez eraenduko da. Langileria eta araubide ekonomiko eta finantzarioari dagokionean Foru Erkidegoaren Administrazioetan aplikagarria den araudi orokorrak eraenduko du, beti ere bere estatutuetan ezarri eta batez ere gastu, kontratazio eta sarrera propioei buruzkoak diren zehaztasunak kontuan hartuta.

Nafarroako Parlamentuak, 1994an, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu zerbitzuaren plan zuzentzailea onetsi zuen; testu horretan epe ertain eta luzera (2000. urtera arteko aldia) diseinatu zen Foru Erkidegoan eskuratu beharreko zerbitzuaren eredua, zertarako-eta eraginkortasun mailarik altuenak eskuratzeko.

Eskuratu diren datuekin bat, 1996ko hasierako aurrekontua 2.187 milioi pezetakoa da eta ekitaldi horri dagokion plantila organikoa, guztira, 406 plazakoa da, nahiz eta beste 100 hutsik egon. Langile horiek ondoko parke hauetakoak dira:

Altsasu.

Auritz

Lizarra

Lodosa

Nabaskoze

Oronoz-Mugaire

Iruñea

Zangoza

Tutera

Azkenik, azpimarratu behar da administrazio lokabea izan arren eta autonomia eta nortasun juridiko propioa eduki arren, egineran bere kudeaketa erabat dagoela Nafarroako Gobernuaren pentzutan, zehatzago Lehendakaritza Sailaren pentzutan.

## II. HELBURUA

Nafarroako Kontuen Ganbara araupetu duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean ezarri denarekin bat, 1997ko ekitaldirako jarduera egitarauari jarraituz, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu zerbitzuaren Partzuergoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta 1996ko ekitaldiari dagokion gastuen eta sarreren aurrekontu-betetzearen fiskalizazioari ekin zaio.

Txostenaren helburua ondoko hauei buruzko gure iritzia ematea da:

a) Ea Partzuergoaren 1996ko Aurrekontu-betetzeak era egokian islatzen duen erakunde horrek aldi horretan egin duen jarduera.

b) Horren ondare egoera 1996ko abenduaren 31n, beti ere aplikagarriak diren kontabilitateko printzipioekin bat.

c) Horren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen zaion ala ez.

d) Aurrekontua betetzean lortu den eraginkortasun, egokitzapen eta ekonomia maila.

## III. NORAINOKOAK ETA MUGAK

### III.I. NORAINOKOAK

Nafarroako Kontuen Ganbarak 1996ko ekitaldiko Partzuergoaren fiskalizazioa egin du.

Horren kontabilitatean aurrekontu-betetzea baino ez da egin eta ez da azaltzen ekitaldi bakoitzaren amaieran Partzuergoaren ondare egoera islatzen duen kontabilitate orokorrik.

Egin den lanaren ardatza sarrera eta gastuen kapitulu ekonomiko guztien berrikuspena izan da eta antolamendua, kontabilitatea eta bidezkotzat jo diren barneko kontroleko alderdiak aztertu dira; halaber, aurrez adierazi diren helburuak eskuratzeko beharrezko frogak egin dira.

Metodologiari dagokionean, Ganbara honek beti erabiltzen dituen egitarauak aplikatu dira, hots, Auditoretzen Gidan bildu eta Estatu Espainiarreko Organo Publikoen Kanpo Kontrolerako Koordinazioaren Batzordeak onetsi dituen Arlo Publikoaren Auditoretzari buruzko Oinarri eta Arauetan garatu direnak.

Eragiketen azterlana, batez ere, Plan Zuzentzailean ezarri diren gidalerroak bete diren mailaren azterketan finkatu dira; irizpide horren arrazoiak aurrerago azalduko dira.

Txostenak sei atal ditu eta horietan egin den lana eta alderdirik adierazgarrienei buruzko iritziak, ondorioak eta aholkuak islatu dira.

### III.2. MUGAK

Egin den lanaren mugen artean ondokoak aipatuko ditugu:

• Arestian ere aipatu den ondare kontabilitate sistemarik eza.

• Partzuergoak aplikatu duen agiritegi sistemak ez du beti bermatzen eman diren administrazioko espediente guztiak daudenik.

• Bukatzeke utzi behar izan dugu aurrekontu-betetzearen eraginkortasun, egokitzapen eta ekonomiaren mailari dagokion atala; arrazoiak ondoko hauek dira:

a) Ez dira azaltzen ekitaldian eskuratu behar diren helburuen xedeak eta adierazleak.

b) Ez da egiten eskuratu nahi diren helburuen betetze mailaren jarraipen sistematikorik. Hala 1995ean nola 1996an ez da gertutu Jardueren Memoriaren agiririk.

c) Egin diren eragiketa, kostu erori eta egotzi, eragiketen eraginkortasun, erantzuteko behar den denbora,... eta abarri buruzko datu sendoak falta dira.

d) Ez da aurkitu eraginkortasun maila neurtzeko beste zerbitzu eta partzuergo batzuekin erkatzeko azterlanik.

Zelaiko lana 1997ko martxoan eta apirilean egin du, nork-eta Auditoretzako teknikari batek eta auditore batek eratu duen taldeak; halaber, Kontuen Ganbarako zerbitzu administratiboen, informatikoen eta juridikoen laguntza izan dute.

Partzuergoko langileen laguntza eskertu nahi dugu lan hau gertutzeko eman diguten laguntzagatik.

## IV. IRITZIA

Egin den fiskalizazioaren esparruaren barruan, 1996ko ekitaldiari dagokion Partzuergoaren gastuen eta sarreren Aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Gure azterketa horretan inguruabarren arabera egokitzat eta beharrezkotzat jo ditugun arauak eta auditoretzako prozedurak erabili ditugu.

Gure berrikuspenaren ondorioak Irizpen honetan islatu ditugu:

• Aurrekontuaren garapenari eta betetzeari dagokionean.

Aurrekontu-betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen du Partzuergoak 1996ko ekitaldian burutu duen jarduera; dena dela, tasengatiko sarrerak kutxako irizpidearekin bat zenbatu dira.

• Ondare egoera 1996ko abenduaren 31n.

Kontabilitate orokorraren faltagatik eta osorik ez dagoen inbentarioagatik ezin dugu Partzuergoak 1996ko abenduaren 31an zuen ondare egoerari buruzko adierazpenik egin.

• Legezkotasunaren printzipioa betetzeari dagokionean.

Urratzeak antzeman dira administrazioko kontratazioa araupetu duen araudian, batez ere adjudikazio faseetan eta inbertsioen burutzapenetan.

• Eraginkortasuna, egokitzapena eta ekonomia.

Partzuergoan ez dago azterketa hau egiteko aukerarik ematen duen bitarteko eta tresnarik eta, beraz, ezinezkoa egiten zaigu 1996ko aurrekontua betetzeko garaian lortu den eraginkortasuna, egokitzapena eta ekonomia mailari buruz adierazpenik egitea.

Hori guztia gora-behera. Plan Zuzentzailean ezarri diren aholkuen jarraipena egin dugu eta izan ditugun ondorioak, oro har, bi izan dira: ez direla aholku horiek betetzen ari, edota horiek betetzeko erritmoa ez datorrela Planean ezarri denarekin bat.

Beraz, eta azken ondorio edo laburpen gisa, Kontuen Ganbara honek uste du Partzuergoaren ekintzen artean ondoko hauei eman behar zaiela lehentasuna:

a) Antolamendua

• Kudeaketaren alorrean Nafarroako Gobernuarekiko menpekotasun eta lokabetasun maila behin betiko argitzea.

• Partzuergoari lotuta dagoen langileria osoa araupetze bakarrean integratu edo batzeko aukera aztertzea, denek eskubide eta betebehar berberak izan ditzaten.

Arazo hauek konpontzea funtsezko beharkizuna da kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzeko neurriak ezartzearen ondorioetarako, autonomia maila handiago edo txikiago batek kontrol maila eta kudeaketarako tresna ezberdinak behar baititu. Hori guztia legezkotasunaren printzipioa hertsiki betez egin behar da.

b) Kudeaketa

Helburu eta adierazkariak ezartzea eta horien jarraipena (memoria, denborak, kostuak,...) hala Partzuergoari nola beste edozein ente publikori eska dakiokeen beharkizuna da, gizarte nafarraren benetako ongizatean izan behar duen ekarpena behar den bezala neurtzearen ondorioetarako.

## V. EGOERA FINANTZARIOAK

### 1996ko ekitaldiko Partzuergoaren aurrekontu-betetzea

GASTUAK

| Lerroa | Izena | Hasier. aurrekontua | Sendotua | Onartua | Burutua, % | %, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1230 | Ordainsari oso finkoa, funtzionarioak | 1.127.000.000 | 1.127.000.000 | 894.609.600 | 79 | 65,73 |
| 1310 | Ordainsaria, aldi baterako lan-itunpeko langileak | 3.533.000 | 17.405.505 | 17.405.505 | 100 | 1,28 |
| 1311 | Ordainsaria, kanpainetarako lan-itunpeko langileak | 134.554.000 | 108.009.627 | 102.268.564 | 95 | 7,51 |
| 1600 | Gizarte Segurantza, funtzionarioak | 44.417.000 | 44.417.000 | 34.981.629 | 79 | 2,57 |
| 1601 | Gizarte Segur., aldi baterako lan-itunpeko lang. | 4.019.000 | 5.065.633 | 5.065.633 | 100 | 0,37 |
| 1602 | Gizarte Segur., kanpainetarako lan-itunpeko lang. | 52.631.000 | 52.631.000 | 40.493.485 | 77 | 2,98 |
| 1603 | Iruñeko Udalaren Montepioko Kuota Patronala | 130.440.000 | 130.440.000 | 119.144.077 | 91 | 8,75 |
| 1702 | Aparteko orduak | 18.000.000 | 18.000.000 | 16.461.646 | 91 | 1,21 |
| 1703 | Jaiegunetako ordainketak | 70.000.000 | 81.625.235 | 81.624.235 | 100 | 6,00 |
| 1704 | Lokalizatuta egoteko goardiak | 2.300.000 | 2.300.000 | 0 | 0 | 0,00 |
| 1705 | Gaueko txandak | 66.246.000 | 66.246.000 | 47.839.301 | 72 | 3,51 |
| 1709 | Bestelako ordainsari aldagarriak | 2.000.000 | 2.000.000 | 1.141.648 | 57 | 0,08 |
| | I. kapitulua, guztira | 1.655.140.000 | 1.655.140.000 | 1.361.035.323 | 82 | 100 |
| 2029 | Ondasun higiezinen errentamendua | 2.000.000 | 1.297.312 | 1.297.312 | 100 | 0,89 |
| 2069 | Ondasun higigarrien errentamendua | 2.000.000 | 2.031.232 | 2.031.232 | 100 | 1,40 |
| 2120 | Eraikinen konponketa eta artapena | 3.500.000 | 1.824.682 | 1.824.682 | 100 | 1,25 |
| 2129 | Ekipoen konponketa eta artapena | 2.000.000 | 4.253.016 | 4.253.016 | 100 | 2,92 |
| 2160 | Telefono, posta, telegrafo eta telex bidezko komunik. | 1.000.000 | 828.985 | 828.985 | 100 | 0,57 |
| 2169 | Ibilgailuen konponketa, mantenim. eta artapena | 27.000.000 | 27.947.028 | 27.947.028 | 100 | 19,21 |
| 2200 | Bulegoko material arrunta ez-inbentariagarria | 3.000.000 | 2.371.683 | 2.371.683 | 100 | 1,63 |
| 2202 | Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalp. | 600.000 | 357.054 | 357.054 | 100 | 0,25 |
| 2210 | Zerbitzuetako hornidura | 1.500.000 | 688.373 | 688.373 | 100 | 0,47 |
| 2214 | Tresneria eta kontsumorako tresneria txikia | 500.000 | 41.454 | 11.823 | 2 | 0,01 |
| 2215 | Botikak | 100.000 | 100.000 | 24.502 | 25 | 0,02 |
| 2216 | Osasun materialak, gastatu ahala berritzekoak | 1.000.000 | 500.000 | 484.690 | 97 | 0,33 |
| 2219 | Hornidura bereziak, gastatu ahala berritzekoak | 7.800.000 | 12.584.595 | 12.584.595 | 100 | 8,65 |
| 2220 | Telefono, posta, telegrafo eta telex bidezko komunik. | 4.500.000 | 11.248.914 | 11.248.914 | 100 | 7,73 |
| 2230 | Garraio eta pleiten gastuan | 300.000 | 705.250 | 705.250 | 100 | 0,48 |
| 2241 | Ibilgailuen aseguruengatiko gastuak | 10.000.000 | 10.924.560 | 10.924.560 | 100 | 7,51 |
| 2249 | Erantzukizun zibil eta istripuetarako aseguruak | 12.500.000 | 8.575.713 | 8.575.713 | 100 | 5,89 |
| 2261 | Protokolo eta eskuordetzako gastuak | 600.000 | 1.498.338 | 1.498.338 | 100 | 1,03 |
| 2262 | Publizitatea eta propaganda | 4.000.000 | 1.669.919 | 1.669.919 | 100 | 1,15 |
| 2266 | Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak | 1.500.000 | 3.013.248 | 3.013.248 | 100 | 2,07 |
| 2269 | Bestelakoak | 1.500.000 | 603.042 | 603.042 | 100 | 0,41 |
| 2271 | Garbiketa eta ikuzketa zerbitzuak | 6.000.000 | 1.696.904 | 1.696.904 | 100 | 1,17 |
| 2274 | Mantenimendu zerbitzuak | 1.000.000 | 300.000 | 236.640 | 79 | 0,16 |
| 2279 | Gainerakoek egiten dituzten beste lan batzuk | 2.000.000 | 1.771.628 | 1.771.628 | 100 | 1,22 |
| 2280 | Elektraenergia, ura, gasa | 6.750.000 | 6.503.141 | 6.503.141 | 100 | 4,47 |
| 2281 | Erregaiak, labangaiak eta berokuntza | 19.000.000 | 18.536.892 | 18.536.892 | 100 | 12,74 |
| 2283 | Konponketa, artapen eta aldagailuetarako materiala | 1.500.000 | 2.583.855 | 2.583.855 | 100 | 1,78 |
| 2284 | Garbiketa eta ikuzketarako materialak | 1.000.000 | 1.000.000 | 991.183 | 99 | 0,68 |
| 2285 | Arropak | 25.200.000 | 26.591.868 | 13.021.283 | 49 | 8,95 |
| 2289 | Bestelako hornidura osagarriak | 2.000.000 | 2.466.855 | 2.466.855 | 100 | 1,70 |
| 2300 | Bidesariak, lokomozioa eta bidaia gastuak | 4.500.000 | 3.609.723 | 3.609.723 | 100 | 2,48 |
| 2400 | Liburuen edizio eta argitalpenengatiko gastuak | 3.400.000 | 1.124.736 | 1.124.736 | 100 | 0,77 |
| | 2. kapitulua, guztira | 159.250.000 | 159.250.000 | 145.486.799 | 91 | 100,00 |
| 4469 | Transferentziak irabazteko asmorik gabeko erak. | 250.000 | 250.000 | 42.445 | 17 | 7,82 |
| 4810 | Dirulaguntzak Partzuergoko erakunde sindikalei | 500.000 | 500.000 | 500.000 | 100 | 92,18 |
| | 4. kapitulua, guztira | 750.000 | 750.000 | 542.445 | 72 | 100,000 |
| 6020 | Eraikinak | 194.000.000 | 194.000.000 | 89.204.387 | 46 | 44,50 |
| 6040 | Pertsonak garraiatzeko ibilgailuak | 123.500.000 | 72.032.253 | 42.625.000 | 59 | 21,26 |
| 6041 | Ibilgailu autopunpak | | | | | |
| 6050 | Bulegoko altzariak eta ekipoak | 42.000.000 | 49.394.410 | 26.185.249 | 53 | 13,06 |
| 6054 | Material teknikoa | 12.500.000 | 56.573.337 | 42.433.997 | 75 | 21,17 |
| | 6 kapitulua, guztira | 372.000.000 | 372.000.000 | 200.448.633 | 54 | 100,00 |
| | Gastuen aurrekontua, guztira | 2.187.140.000 | 2.187.140.000 | 1.707.513.200 | 78 | 100 |

| DIRUSARRERAK | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lerroa | Izena | Hasier. aurrekontua | Sendotua | Onartua | Burutua, % | %, guztira |
| 3290 | Partzuergoaren tasak, egin diren zerbitzuengatik | 4.500.000 | 4.500.000 | 6.171.353 | 137 | 0 |
| 4456 | Nafarroako Gobernuaren transf., I. kap. | 1.655.140.000 | 1.655.140.000 | 1.361.035.323 | 82 | 80 |
| 4457 | Nafarroako Gobernuaren transf., 2. eta 4. kap. | 154.000.000 | 154.000.000 | 138.042.658 | 90 | 8 |
| 4458 | Nafarroako Gobernuaren transf., 6. kap. | 372.000.000 | 372.000.000 | 200.448.633 | 54 | 12 |
| 5200 | Bankuetako kontuen korrituak | 1.500.000 | 1.500.000 | 1.815.223 | 121 | 0 |
| | Sarreren aurrekontua, guztira | 2.187.140.000 | 2.187.140.000 | 1.707.513.190 | 78 | 100 |

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA ALDERDIRIK ADIERAZGARRIENEI BURUZKO AHOLKUAK.

VI.1. 1996KO AURREKONTUAREN KITAPENA.

Partzuergoaren 1996ko aurrekontuak –ikusi V. atala– 2.187 milioiko gastuen eta sarreren hasierako kredituak ditu.

Betetzeari dagokionean, onetsita dauden eskubideak eta betebeharrak 1.708 milioikoak dira eta horrek ehuneko 78ko betetze maila dagoela eta 1995eko aurrekontuarekiko gehikuntza ehuneko 5ekoa dela adierazten du.

Horren guztiaren ondorioz, aurrekontuaren emaitza zero da, hau da, ez dago ez mentsarik eta ez superabitik, Nafarroako Gobernuaren sarrerak era egokian doitzen baitira.

Gastuen kapituluka, gastuaren azalpena langileriarean metatzen da –ehuneko 80–, inbertsioetan –ehuneko 12–, eta ondasun arrunt eta zerbitzuen eskuraketan –ehuneko 8–. Horien betetze-mailari dagokionean, betetze mailarik baxuena duen alorra inbertsioena da, ehuneko 54a baino ez duelako, batez ere Nafarroako Gobernuak zuzenean burutu dituelako Parke Zentraleko obrak.

1995eko ekitaldiarekin erkatuta, langileriagatiko eta ondasun arruntengatiko gastuak ehuneko 5ean eta ehuneko 33an hazi dira, hurrenez hurren; inbertsioa, ordea, ehuneko 12an murriztu da.

Ordainketei dagokienean esan behar da ehuneko 91n egin direla; egiteke, guztira, 162 milioi daude, batez ere inbertsioengatiko betebeharrei dagozkienak (Aralar kaleko parkea eta ibilgailuak).

Sarreren kapituluei buruz azpimarratu behar da Nafarroako Gobernuaren ekarpenekiko menpekotasuna, Partzuergoaren bitarteko finantzario ia guztiak horiek baitira, sarrera propioak –tasak eta ondarezkoak– 8 milioi ingurukoak baino ez direlako –osoaren ehuneko 0,5a–.

VI.2. ANTOLAKUNTZA ETA ALDERDI OROKORRAK.

Ondoko hauek azpimarratu ditugu:

a) Partzuergoaren egungo antolakuntzaren egitura 1996ko urtarrilean onetsi da eta jarraian azalduko den laukian bildu da.

Ikus daitekeen bezala, lau zerbitzu daude –administrazioa, eragiketakoak, plangintza eta logistikoa– eta horietan sartzen dira unitate/alor guztiak; aipatu behar dira horietatik hutsik daudenen –14 plaza– kopuruaren altua.

Zelaiko lanarekin bat Partzuergoaren lehengo antolakuntzako egituraren zehaztapen berria ari da gertatzen. Horrela, bada, 1997ko martxoaren 4ko erabakiaren bidez (NAO, 63. zenbakikoa, 1997ko maiatzaren 26koa) 2. lauki horretan eraso den egitura organiko hori aldarazi da, baita esleitu diren funtzioak ere, Zuzendaritzari atxikita dagoen Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua sortuz alegia, eta horri atxiki zaizkio Zerbitzu Tekniko Logistikoa eta Eragiketetarako Zerbitzu Teknikoa. Halaber, data horretan hartu zen Erabakiaren bidez, Partzuergoaren Zuzendariari Zuzendaritza Kontseiluak eman dizkion funtzio berriak esleitu zaizkio.

b) Ez da Estatutuen 7. artikulua garatu barne araubideari eta Partzuergoaren zerbitzuen jardunbideari dagokionean.

c) Oinarrizko administrazio-kontabilitateko prozedurak –erosketak, nominak, ordainketak,...– ez dira idatziz zehaztu; halaber, gauza bera gertatu da lanpostu bakoitzari esleituriko atazei dagokienean.

d) Kontabilitateko tratamendua aurrekontuaren kitapenaren jarraipenean eta erregistroan bukatzen da, hots, ez da ondare kontabilitatezko sistemarik aplikatzen. Dena dela, oraintsu horren ezarpena bideratuko duen programa informatikoa eskuratu da.

e) Ondasunen zerrenda ez da osoa, balorazioak egin gabe daude eta ez dago eguneratuta, batez ere Nafarroako Gobernutik datozenetan.

f) Barneko kontrola-kontuhartzailetza Nafarroako Gobernuaren Kontuhartzailetzari esleitu zaio eta erakunde horretan egiten diren ohiko prozedurak erabiliz egiten da.

Su-Itzaltzeen Partzuergoaren organigrama. (1996-XII-31)




(*) Betegabeko lanpostuak

g) Bankuetako kontu korronteetan Partzuergoburuaren eta Zuzendariaren sinadura baliokideak daude, nahiz eta mugimendurik gehienak banku transferentzien bidez egin. Kondaketa-akta eta banku-berdinkatzeak ez dira arduradunek era egokian sinatutako agirietan formalizatu.

Aurreko alderdi horiek argi adierazten dute Partzuergoak jardunbide ekonomiko-administratiboa hobetzearen ondorioetarako behar dituen antolakuntza eta kontabilitate tresnak zuzkitu behar dizkiola bere buruari. Horretarako ondoko hau aholkatu dugu:

*• Antolakuntzako egitura berriz zehaztu eta behin-behineko fase hori gainditu ondoren, barne araubideari buruzko araudia gertutzea.*

*• Oinarrizko prozedurak eta lanpostu bakoitzean egin behar diren lanak zehaztea.*

*• Etenik gabe Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra ezartzea.*

*• Inbentario osoa gertutzea eta kontabilitate sistemarekin lotzea beti eguneratuta egon dadin.*

*• Kondaketa-aktak eta banku-berdinkatzeak arduradunek sinatuta behar dute egon eta kontu guztietan sinadura amankomunatuak azaldu behar dute.*

VI.3. LANGILERIA

a) Langileriaren gastuak 1.361 milioi pezetakoak dira –hau da, gastuen munta osoaren ehuneko 82–, eta portzentaian ondoko koadro honetan adierazi den bezala banatu dira:

| | Portzentaia |
|---|---|
| Ordainsari finkoak, funtzionarioak | 66 |
| Ordainsari finkoak, kontratatuak | 9 |
| Gizarte Segurantzak | 6 |
| Iruñeko Udalaren Montepioko ekarpena | 9 |
| Ordainsari aldagarriak | 10 |
| Guztira | 100 |

1995ekoarekin erkatuta, honen gehikuntza ehuneko 5ekoa da; dena den, ordainsari aldagarrietarako kredituetan ehuneko 23ko gehikuntza egon da, batez ere aparteko ordu eta jaieguneta-ko orduengatik, hitzarmenaren bidez horien ordainketan gehikuntza egon baita.

b) Plantila organikoa. 1996ko plantila organikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu gabe zegoen. Halaber, azpimarratu egiten dugu 1995ean ez zela inolako plantila organikorik onetsi.

1996ko abenduan, guztira, 406 plaza daude eta horietatik 100 hutsik –hau da, ehuneko 24–. Lanpostu hutsen portzentaia altu hori justifikatzeko esan behar da Plan Zuzentzailearen gidalerroekin bat datorren gizaldiaren hasierarako diseinatu den plantilan helburua 420 plaza izatea dela. Datu horrek, halaber, 1996ko enplegu eskaintzan kabo-suhiltzaileen 20 plaza eta suhiltzaileen 44 plaza eskaintzea azaltzen du. Beste alde batetik, egon dauden plaza guztietatik, ehuneko 58 Nafarroako Gobernuko funtzionarioak dira eta ehuneko 18 Iruñeko Udalekoak. Beste Administrazio batzuetako langileak zerbitzu berezien egoeran daude.

Jatorrizko administrazioaren arabera langileriaren artean gizarte-onura ezberdinak egoteak ez du beti Partzuergoaren langileriaren kudeaketaren alde egiten eta, areago, eguneroko jardunean eragozpenak sor ditzake.

Jarraiko koadro honetan plantilan aurreikusi diren lanpostuen kategoria guztien taldeak adierazi dira.

| Lanpostua | Plantila | Beteta |
|---|---|---|
| Suhiltzailea | 218 | 155 |
| Suhiltzaile-gidaria | 61 | 61 |
| Zerbitzu osagarriak | 42 | 42 |
| Kabo-suhiltzailea | 51 | 26 |
| Sarjentu-suhiltzailea | 14 | 14 |
| Ofizialorde-suhiltzailea | 3 | - |
| Ofizial-suhiltzailea | 6 | 3 |
| Administrazioa | 11 | 5 |
| Guztira | 406 | 306 |

Aurreko koadro horretatik zerbitzu osagarrien egoera azpimarratu nahi dugu. Egoera hori suhiltzaileetako langileriak 55 urte betetzen dituenean eskuratzen da eta, hortik aurrera, edo lan aktiboan jarraitzen dute –medikuaren aldeko txostena behar da– edo lan osagarriak egiten dituzte. Bigarren lanpostu horretan egin behar diren lanak araupetu gabe daude, nahiz eta egun langileriaren ehuneko 10 talde horretan egon.

Azkenik, eta 1994ko plantilari dagokionean –era egokian onetsita dagoen azkena– ondoko hauek azpimarratu nahi ditugu maila teorikoan:

• Langileen kopurua ehuneko 20an hazi da.

• Gehikuntza hori, batez ere, suhiltzaileen artean gertatu da, 1994ko 210ak 279 direlako 1996an, ehuneko 33ko gehikuntza alegia. Halaber, ofizial-suhiltzaileen kopurua bikoiztu egin da

–3tik 6ra– eta baita ofizialorde-suhiltzaileena ere –0tik 3ra–.

• Gutxitu egin da zerbitzu osagarrietara atxikita zegoen langileen kopurua, 1994an 56 zirelako eta 1996an 42 baino ez, hau da, ehuneko 25 gutxiago.

c) Nomina. Langileriaren nomina Nafarroako Gobernuan erabiltzen den aplikazio informatiko bera erabiliz egiten da. Egin den nominaren froga zuzena da; dena den, ondoko hauek adierazi behar dira:

• Beste administrazio batzuetatik datozen langileen kasuan ez dago Partzuergoaren Langileriaren Erregistro Orokorrik, gutxieneko oinarrizko informaziorik ematen duena.

• Langile atxikien administrazioko espedienteak oso egoera txarrean daude.

• Batzuetan ordainsari aldagarriak ez dira agiri egokiaren bidez bidezkotu.

• Ez da ordainsarien urteko laburpenik egiten.

• Nominako atxikipenak ez dira kontabilitatean idazten, Nafarroako Gobernuak berak egiten baitu kontabilitate hori.

d) Udako kanpainako aldi baterako kontratazioa. Urtero Partzuergoak aukeraketa frogak egiten zituen –batez ere froga fisikoak eta ezagutzaren alorrekoak– langile osagarriak kontratatzeko; 1996an, ordea, egin den aukeraketa jarraikako lau aldirako da eta horrek legezkotasunari buruzko dudak sor ditzake kontratuaren benetako izaerari dagokionean.

e) Harremanak Iruñeko Udalarekin. Bi alderdi azpimarratu ditugu:

• Udaletik etorri diren langileek artean Udalari eskatzen dizkiote soldata aurrerakinak eta osasun gastuak; gero erakunde horrek Partzuergoari jakinarazten dizkio nominatik kentzearen ondorioetarako.

• Partzuergoak parte hartzen du Iruñeko Udalaren Funtzionarioen Montepioaren finantzaketan eta adostu zen portzentaia Partzuergo horretan lan egiten duten langile propioen oinarrizko ordainsarien ehuneko 67,58koa da. 1996an portzentaia hori 119 milioi pezetakoa izan da.

Aholkuak:

*• Urtero plantila organikoa onestea.*

*• Partzuergoan lan egiten duten funtzionarioak legez kidego bakarrean biltzeko aukerak aztertzea, horien jatorrizko administrazioa gora-behera.*

*• Zerbitzu osagarrietako langileek egin behar dituzten funtzioak araupetzea.*

*• Langileen Erregistro Orokorra ezartzea.*

*• Langileen espedienteak osatzea eta beti eguneratuta edukitzea.*

*• Ordainsari aldagarriak era egokian erasotzea agirietan.*

VI.4. SARRERAK

Egin den berrikuspenaren ondorioak ondoko alderdi hauek dira:

a) Nafarroako Gobernuaren kontabilitatearekin adostasuna. Partzuergoak Nafarroako Gobernutik datozen eta erregistratu dituen sarrerak erakunde horrek zenbatu dituen gastuekin bat datozen aztertu da.

Ondorio bezala, hori benetan gertatu da, hala hasierako aurrekontuan nola jaso diren kapital transferentzien kasuan, baina ez jarduteko gastuetarako direnetan, horietan 30 milioiko aldea antzeman baita, batez ere langileengatiko gastuetan. Alde horren azalpena Nafarroako Gobernuak nominaren kontabilitateari dagokionean erabiltzen duen sistema bitxian egoten ahal da.

b) Zerbitzugintzagatiko tasen sarreren kudeaketaren berariazko alderdien artean ondokoak azpimarra daitezke:

• Idaztohar bakarrean zenbatu da, kutxako irizpidearekin bat eta tasa sortu den ekitaldia gora-behera. Horrela, bada, kontzeptu honetan erregistratu diren sarreretatik –6 milioi–, ia ehuneko 40 1996ko ekitaldikoak dira; gainerakoak aurreko ekitaldietan sorturikoak dira.

• Fakturazioa ez da aldiro egiten.

• Ez da bidezko berandutzagatiko korrituaren sortzapena egiten.

• Ez dago betearazpidezko agentzia edo agenterik.

• Aurreko ekitaldietako zordunak aurrekontutik at erregistratzen dira eta 1996ko abenduaren 31n 13 milioi erregistratu dira, ondoko koadro honetan ezarri denarekin bat (munta milaka pezetatan):

| Ekitaldia | Zenbatekoa |
|---|---|
| 1992 | 1.854 |
| 1993 | 2.818 |
| 1994 | 3.026 |
| 1995 | 3.609 |
| 1996 | 1.727 |
| Total | 13.034 |

*• Bidezko neurriak hartzea aholkatzen dugu Partzuergoaren sarrera propioen kudeaketa hobetzearen ondorioetarako, batez ere kontabilitatea kontabilitate publikoaren oinarriekin bat egiteko, kudeaketak eta kobrantzak arintzeko eta berankorren kasuan betearazpidezko bidea aplikatzeko.*

VI.5. ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

Aztertu ditugun kontratazioko espedienteen artean ondoko hauek azpimarratuko ditugu:

a) Iruñeko Aralar kaleko Parkearen Zaharberrikuntza Obrak.

• Obrak enkantearen prozeduraren bidez adjudikatu ziren, 81,6 milioitan –beherapena ehuneko 18,54koa izan zen-; burutzeko epea 8 hilekoa zen.

• Obra, ofizialki, 1995eko uztailean hasi zen eta, beraz, 1996ko martxoan bukatuta behar zuen egon. Dena dela, burutapenean zehar agindu eta kontra-agindu batzuk izan ziren –dirudienez zuzendaritza talde berrian izandako aldaketengatik– eta obraren amaiera atzeratu egin zen. Esan behar du guk ezin izan ditugula agindu eta kontra-agindu horiek frogatu, espedientean ez baita azaltzen bidezko Aginduen Liburua.

• Halaber, espedientean ez da azaltzen Partzuergoak izendatu zuen obraren teknikari koordinatzailea.

• Aldarazpen espedientea tramitatu zen aurreko obrak biltzeko eta burutzapenaren epea luzatu egin zen, 1996ko uztailaren amaierara arte alegia. Espediente horren tramitazioaren munta 16,2 milioikoa izan zen –hau da, adjudikazioaren muntaren ehuneko 19,9– eta arazo teknikoak eta kontuhartzailetzakoak planteatu zituen, eta, ondorioz, horren onespena nabarmen atzeratu zen eta eragiketa hori 1996ko urriaren 23an burutu zen –obrak maila ofizialean bukatzeko data 1996ko uztailaren 31 zen–. Hasierako adjudikazioaren muntaren gaineko desbideraketak ez zuen ehuneko 20 gainditzen eta, beraz, aldarazpen horiek obra nagusiaren kontratazioa egin zuen enpresarekin kontratatu ziren.

• Txosten hau gertutu den unera arte enpresa adjudikazio-hartzaileari 70,2 milioiko muntako ziurtagiriak baino ez zaizkio ordaindu eta artean ordaintzeke daude 27,6 milioi –1996ko abenduko datakoak–, ordaintzeke dauden zenbatekoei dagokienean ez baitago akordiorik obrako teknikari koordinatzailearen obra zuzendariaren eta enpresa adjudikazioaren artean.

• Arestian adierazi den guztiaren ondorioz obrak jasotzeke daude; dena dela, inaugurazio ofiziala 1997ko martxoaren 8an egin zen.

• Obra zuzendaritzaren funtzioa zuzenean adjudikatu zen lau milioitan; bidezkoketa bezala arkitekto zuzendaria obra proiektua gertutu zuena izatean datza.

• Obren aldarazpenaren espedientean antzeman diren inguruabar berberak errepikatzen dira zuzendaritzakoan eta proiektu eraldatuaren –1,1 milioi– eta obra osagarriaren zuzendaritzaren –0,8 milioi– idazkuntza eta adjudikazioaren prozesuan antzeman diren irregularitateak hala txosten juridikoan nola kontuhartzailetzarenean azaltzen dira.

• Txosten hau idatzi den unera arte zuzendariari ordaindu zitzaion bakarra proiektu aldaraziaren zatia zen –1,1 milioi–, eta ez zaio PFEZri dagokion atxikipena egin. Obra zuzendaritzagatiko munta adjudikazio-hartzailearekin dauden tirabirak konpontzen direnean ordainduko zaizkio.

• Aldarazpen obrak burutzearen ondorioz enpresak eta obra zuzendariak aurkezturiko fidantzak ez datoz bat.

b) Landa-ponpa astun bat erostea

• Adjudikazio prozedura lehiaketa bidezkoa izan zen –lizitazioaren munta 30,5 milioikoa izan zen–.

• Proposamenak irekitzeko prozesuan Kontratazio Mahaiak aurkezturiko proposamen bat onetsi zuen, non pleguetan eskatzen zen bermealdia baino motzagoa eskaintzen baitzen –gutxienekoa zen urte batekoa biko epearen ordez–. Gure iritziz eskaintza hori onartezina zen. Dena dela, onetsi ezezik, adjudikazio-hartzailea ere izan zen –29.9 milioi eta urte bateko epea– eta direlako baldintza horiek berariaz islatu ziren kontratuan.

• Aurkeztu ziren proposamenak aztertuz Partzuergoaren Zuzendariak gertutu zuen txostenean ez da era egokian justifikatu horiei ezarri zitzaien puntuazioa, batez ere “prezioa” iritziari jarritakoak.

• Ez dago pleguetan aurreikusi ziren alderdi teknikoen atalak baloratzeko txosten teknikorik.

• Hori gora-behera, adjudikazio-hartzailearekin kontratua sinatu zenean berme epea bi urtetan ezarri zen.

c) Altzariak, Takilen eskuraketa.

• Lehiaketa bidezko prozedura; lizitazioaren zenbatekoa 5,2 milioikoa izan zen.

• Ez da era egokian bidezkotu eskaintza bakoitzari esleitu zitzaizkion irizpideen puntuazioa edo

balorazioa. Dagoen txosten bakarra Partzuergoaren Zuzendariak sinatutakoa da.

• Enpresa adjudikazio-hartzaileak “beherapen ausartegia” kontzeptuaren barruan sartzen ahal den eskaintza ekonomikoa aurkeztu zuen eta espedientean ez da azaltzen adjudikazioa azaltzen edo bermatzen duen txostenik, nahiz eta arestian adierazi den uste hori izan.

• Espedientean ez da pleguan aurreikusi den jasoketaren akta azaltzen, nahiz eta arestian aipatu diren takila horiek instalaturik egon.

d) Bestelako hornikuntza eta kanpoko zerbitzu batzuk.

Egin den berrikuspenean adierazi da ez dela beti eragiketen ebaketa egokia egiten –1995eko fakturak 1996ko aurrekontuari egotzi zitzaizkion-; zenbait kasutan ez da era egokian aplikatzen PFEZ araudia, eskuraketa batzuk bidezko albaranik eta fakturaren ontzat emanik gabe azaltzen dira eta, eragiketa jakin batzuetan, eskuraketen nolabaiteko zatiketa antzeman daiteke zertarakoeta munta handiagoak eskatuko lituzkeen legezko eskakizunak beheratzeko edo leuntzeko.

Oro har, aurreko iruzkin horiek kontratazio publikoa araupetu duen araudiaren urratze multzoa adierazten dute eta Partzuergoari egiten diogun aholkua kontratazioaren prozesuan kontrol eta zuzentasun gehiagoz jokatzea da, prozesu horretan Administrazio Publiko guztiei eskatu behar zaien legezkotasun printzipioa betetzearen ondorioetarako.

VI.6. PARTZUERGOAREN ESKUHARTZEAK 1996AN

Partzuergoak eman digun informazioaren arabera, 1996an guztira 6.186 eskuhartze egin dira; horien xehekapena hau da:

| Eskuhartzea | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Suteak | 1.732 | 28 |
| Salbamenduak | 799 | 13 |
| Laguntza Teknikoak | 2.503 | 40 |
| Eskuhartzerik gabeko irteerak | 1.152 | 19 |
| Guztira | 6.186 | %100 |

Urtean zehar jarduketa gehien egiten diren aldiari dagokionean otsaila, martxoa eta uztaila aipatu behar dira, horietan 600 eskuhartzetik gora baitaude. Ordutegiari dagokionean arazorik gehien 18:00etatik eta 21:00etara izaten direla esaten ahal da.

Parkeen arabera, Iruñekoak jarduketa horien ehuneko 63 burutzen ditu.

VI.7. PLAN ZUZENTZAILEAREN JARRAIPENA

Arestian ere esan den bezala, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea onetsi zuen; testu horretan, laburpen bezala, jarduketako ondoko ardatz nagusi hauek ezarri ziren:

a) Arazo gatazkatsuak edo araupetu gabeak. Batez ere langileriaren, instalazioen eta ibilgailuen aldi erabilgarriari buruzkoak ziren.

b) Helburu zehatzen definizioa: foru lurralde osoan erantzuna emateko aldia 20 minututik beherakoa izatea; gutxienez eskuhartzeko taldeetan 3 suhiltzaile izatea lehen irteeran; mendiko eta urpeko salbamendurako talde iraunkorrak; langile profesional eta borondatezko langileak biltzen dituzten suhiltzaileen parkeen sareak egitea; zerbitzuari beharrezkoak diren giza baliabideak ematea eta, halaber, pertsona horiei prestakuntza iraunkorra ematea, etab.

c) Nafarroako eredu ideala definitu da, hots, profesional/bolondresen zerbitzu mistoa, Partzuergo baten bidez kudeatua eta, besteak beste, ondoko parametro hauekin:

Suhiltzaileen kopurua biztanleko. Ratio hori zenbatzeko, Europako gure inguruan egiten den bezalaxe, suhiltzaile profesional bat ezarri da 1.000 biztanleko.

Erantzuteko denbora:

• Hiri esparruan, bost minutu.

• Landa esparruan, 15 minutura arte.

• Baso esparruan, 20 minutura arte.

Agiria Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 1994ko irailean onetsi zituen Zerbitzuaren Plan Zuzentzaileari buruzko Ebazpen batzuekin bukatzen da, zehatzago, hala zerbitzuak berak gauzatu behar dituen jarduketei nola Nafarroako Gobernuak burutu behar duenari buruzko 12 ebazpen.

Ez da azaltzen Partzuergoak Plan Zuzentzaile horretan egin diren aurreikuspenen burutzapen mailaren jarraipen zehatzik egiten duenik baina, egin den lanarekin bat, horiek ez direla betetzen esan genezake, ez direlako burutu edota benetako egutegia Planean ezarri dena baino motelago gertatu direlako.

Besteak beste ondokoak azpimarratu ditugu:

• Ez da azaltzen basoko suteen prebentziorako plan bereziaren onespenik.

• Ez da onetsi Partzuergoaren zerbitzura dagoen langileria araupetzeko foru lege berezia.

• 1996ko amaieran 40 plazako aldea antzeman da benetan egon daudenen eta Planean aurreikusi direnen artean. Hori horrela izan arren, egun suhiltzaileen 54 plazarako deialdia egin da.

• Ez da azaltzen prestakuntza iraunkorrerako eta prestakuntza fisikorako planaren onespenik.

• Parke Zentralaren eta Azkoiengoaren eraikuntza lanak ez dira hasi. Egon daudenen zaharberrikuntzei buruz Iruñeko Aralar kalekoa eta Lodosakoa baino ez dira amaitu.

• Profesional-bolondresen zerbitzu mistoa bilakatzeari dagokionean, Partzuergoan ez da horri buruzko jarduketarik azaltzen.

• Ibilgailuetan eta makinerian egiten den urteko inbertsioaren aurreikuspenari dagokionean, hau da, 185 milioi/urtero ezarri den munta finkoari, adierazi behar da 1996an zenbateko hori 42,6 milioikoa izan dela. Inbertsioak egiteko ahalmenik handiena izan duen ekitaldia 1995ekoa izan zen, 163 milioirekin.

• 1995eko Foru Erkidegoaren biztanle kopuruarekin bat –536.192 biztanle–, suhiltzaile/mila biztanleko ratio estandarra 536 ingurukoa dela esan behar da. Gaur egun ratio horren balioa gutxi gora-behera 400ekoa da eta, ondorioz, ratio estandar horretatik nahiko urrun dagoela esan genezake.

Oro har, aurreko iruzkin horiek guztiek argi adierazten dute berriz planteatu behar direla Plan Zuzentzailean ezarri diren helburuak eta neurriak eta gaurko egoerara moldatu; halaber, jarduketa batzuei lehentasuna eman behar zaie, betetzeko errealistagoak diren egutegiak gertutu eta kontrola, jarraipena eta eten gabeko eguneratzea eta egokitzapena bermatuko duten bitartekoak ezarri.

Iruñean, 1997ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

**1. ERANSKINA: SU-ITZALTZE ETA SALBAMENDURAKO PARTZUERGOKO PARTZUERGOBURUAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK.**

Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko Partzuergoaren sorkuntzaren arrazoia Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren borondatean datza, zertarako-eta administrazioen arteko lankidetzan eta kudeaketa bateratuan oinarrituta zerbitzu publikoa eratzeko. Ente hori eratzeko eta ezartzeko banakako itunaren forma hautatu da.

Partzuergoaren Estatutuak Nafarroako Gobernuak onetsi zituen 1990eko abenduaren 20an eta horren eta Partzuergoko kide diren enteen atxikipenari buruzko bidezko hitzarmenak 1991ko maiatzaren 24an sinatu ziren.

Nahiz eta Partzuergoa, bere Estatutuetan ezarri denaren arabera, berariazko izaera juridikoa duen ente bezala sortu, hau da, eratzen duten erakundeetatik lokabea dena, bere helburuak betetzeko ahalmen juridikoak dituena, egia esan, dirudienez, bereiztuta dauden bi talde benetan biltzerakoan sortzen diren zailtasunak, antolakuntzarik ezak eta baita ordura arte jatorrizko Administrazioek burutzen zituzten eginkizunak betetzeko giza baliabide egokirik ez egoteak, eta baita ente berriaren Administrazioak horien, edo, hobeto esanda, Nafarroako Gobernuaren organo bezala jarduteko adierazi zuen joerak, horrekiko menpekotasun dinamika ezarri zuten, hura baita ente berriaren hornikuntzarako fondoak zuzkitzen dituena eta baita hurrenez hurreneko berrantolakuntzak burutzen dituena.

Ildo horretatik entearen menpekotasunari buruzko txostenean agertu den iritziarekin ados baino ezin da egon (4. orrialdea) edo, halaber, horretan ente berriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko menpekotasun eta independentzia gradua behin betiko argitzeko beharrizanari buruzko aholkuarekin ados egon behar da (9. orrialdea).

Baina, oro har, VI. atalean islatu diren aholkurik gehienekin ados egon gaitezke. Ez hori bakarrik, badirudi antzemanda zeudela hala aurreko antolakuntzako egituraren definizio berriarekin Partzuergoko Zuzendariari ezarri zitzaizkion helburuetan nola esleitu zaizkion betebehar berrietan (txostenaren 13. or.) eta horien xede berezia, orokorrean, auditoretzaren txostenean adierazi diren mentsa horiek estaltzea eta zuzentzea zela.

III.2. Mugak deritzonean egin diren baieztapenetan, c) letran, datuen ausentzia aipatu da eta horrek ez du errealitatea islatzen, Eragiketen Koordinazio Zentruan (SOS Nafarroa) egin diren eragiketei, erantzunak emateko denborei eta zerbitzuaren eskuhartzeei buruzko beste inguruabarrei buruzko datu nahikoak daudelako –eta horiek guztiak urteko memorietan edo estatistiketan bildu dira-; gauza bera esaten ahal da beste zerbitzu eta su-itzaltze partzuergoei buruz, 1997ko apirilaren 9tik 11ra Iruñean estatu mailan antolatu zen suhiltzaileen partzuergoetako arduradunen lehen-

biziko bilera egin zelako, besteak beste, informazioa elkartrukatzearen ondoreetarako.

Ez da beharrezkotzat jotzen Partzuergoaren zerbitzura dagoen langileria arau bakarrean integratzeari edo bateratzeari buruzko prozesua, seguruenik gatazkatsua, irekitzea (iruzkina IV.ean, Iritzia, b), Antolakuntza eta VI. 3.c), Nomina, 17. orrialdea), disfuntzioak ez direlako garrantzitsuak, langileekin eskuratu diren akordioen bidetik arazo asko homogeneizatu direlako. Ustezko araubide bateratuak, zilegi balitz, kostu handia izanen luke eta, aldi berean, beste funtzionario batzuen kalterako eta horiek apalarazterako izanen litzateke eta hori guztia kontuan hartuta egun Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan bertan ez dagoela araubide bakarrik.

Hori guztia gora-behera VI. atalean azaltzen diren iruzkinak, ondorioak eta aholkuak aztertu ondoren, ondoko hauek azpimarra daitezke:

Partzuergoaren sarreren kapituluan (12. orrialdea) etorkizunean zuzenean egotzi beharko litzateke aurrekontuan UNESPAk ordaintzen duen zerga berezia (61.800.000 pezeta, 1996an); horrela haren autofinantzaketa tasak %3a gainditetuko luke.

1996ko ekitaldiko plantila organikoa (16. orrialdean iruzkin bat dago) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 65. zenbakikoa, 1997ko maiatzaren 30ekoa.

Printzipioz ez du ematen Partzuergoan bere zerbitzura dauden eta beste administrazio batzuetatik etorritako langileen Erregistro Orokorra sortzeak kudeaketa erraztuko duenik; egon dago lankontratudun langileen erregistroa eta jatorrizko administrazioetako funtzionarioek horietan jarraitzen dute, zerbitzu berezietako egoeran alegia eta, argi dago, horrek nahastea baino ez du sortzen, salbu eta Partzuergoaren eta jatorrizko administrazioen arteko komunikazio ona eta erabatekoa bada; horrela gertatuz gero planteatu egin beharko litzateke ea Erregistro Orokorra edo Integratua beharrezkoa ote den.

17. orrialdean azaltzen den iruzkinari dagokionean, hau da: “Ez da ordainsarien urteko laburpena egiten”, adierazi nahi dugu nominak, auditoretzako txostenean esan den moduan, Nafarroako Gobernuko gainerako erakunde autonomoek eta departamentuek erabiltzen duten programa berarekin gertutzen direla. Laburpenak egiten dira nominen eta langileen kontzeptuka eta horiek ordenadore nagusian gordetzen dira eta baimena eskuratu ondoren datu horiek eskuratzen ahal dira.

Bukatzeko, eta udako kanpainako aldi baterako kontratazioari dagokionean, adierazi behar dugu sindikatuek eta Partzuergoko Zuzendaritzak sinatu zuten akordioaren emaitza dela; horren indarraldia lau urtekoa zen, hots, hitzarmenak duena.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24an

Partzuergoko partzuergoburua: Javier Vitrián Arigita

**2. ERANSKINA: JAVIER SEBASTIAN ROMERO JAUNAK, 1996AN SU-ITZALTZE ETA SALBAMENDURAKO PARTZUERGOKO ZUZENDARIA ZENAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK.**

Nafarroako Gobernuaren funtzionarioa eta Segurtasun Gaietan Gradu Ertaineko Teknikaria den Javier Sebastián Romerok, 1996an Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoko zuzendaria zenak.

Jaun agurgarria:

Egun honetan, 10:20ak direnean, Barneko Zuzendari Nagusiak, Alfredo González Echarren jaunak 1996ko ekitaldiko Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoaren kudeaketa ekonomikoa eta finantziarioaren fiskalizazioaren behin-behineko txostenaren fotokopia bat eman dit, 1997ko ekainaren 17ko data duena alegia.

Partzuergoko Zuzendari Nagusiak eta Partzuergoburuak aginduta joan den otsailaren 28an oporrak hartu nituen eta, arestian ere iragarri den bezala, aldi horretan Partzuergoko zuzendari kargutik kendu ninduten eta data horretatik aurrera Erakunde horretako inork ez du nigana jo ezertarako eta ez dut inolako aukerarik izan 1997ko martxoan eta apirilean egin zen “landa-lanerako” informaziorik emateko (aipamena behin-behineko txostenaren 7. orrialdean egin da).

Behin-behineko txostena irakurri ondoren uste dut argitasun batzuk eman behar ditudala (alegazioak); ahaleginak eginen ditut argigarriak eta zuzenak izan daitezen, baina hala gertutzeko izan dudan denbora aldeko urritasunak nola egun Suhiltzaileetan ez egoteagatik dokumentaziorik eskura ez edukitzeak gehiti dizkidan zailtasunak izan arren.

Hori guztia gora-behera nire itxaropena argitasun hauek Ganbararentzat baliogarri izatea da eta argi utzi nahi dut eskuratu nahi duten beste edozein ekarpen osagarri emateko eskura nagoela.

Zuon behin-behineko txostenean ezarri den ordena jarraiki, nire alegazio pertsonalak adierazi nahi ditut:

1.- (Behin-behineko txostenaren 5. orrialdea). Helburuari dagokionean, badirudi txostenean a) eta d) puntuei buruzko iritziak falta direla. Dena dela, behin-behineko instalazioen kolokako egoera kontuan hartu eta baita aipatu beharko litzatekeela: espazioari eta bitartekoei buruzkoak, baita Administrazioko plantilarena ere: urtean zehar 2 funtzionario eraginkor baino ez eta gainerakoak, aldi baterako 5 kontratatu ziren.

2.- (6. orrialdea, III.I. Hedapena). Eskura zegoen langileekin lan egiteko zeuden aukeren ebaluazioa eginen balitz edo, gutxienez, horri buruzko erreferentzia eginen balitz, egiten ziren lanei buruz adierazi den “mugatua” iritzi hori zintzoagoa litzateke.

Halaber, aipatu behar da frogatuta dagoela Nafarroako Gobernuko Langileriaren atalari etenik gabe eskatzen zitzaizkiola administrazioko langileak, hori zelako hornikuntzaren erantzukizuna zuen organoa, eta froga horiek Suhiltzaileen artxibategietan daude.

3.- (6. orrialdea, III.2. Mugak, hirugarren lerroaldea). Artxibatzeko sistema aurreko taldetik jarauntsitakoa zen eta arestian ere aipatu diren leku eta langileen alorreko muga horiek ez zuten hobetzeko aukerarik ematen. Hobekuntza hori Aralar Parkeko instalazio berrietan egitea proiektatu zen.

4.- (6. eta 7. orrialdeak, III.2. Mugak, a) eta b) atalak). Helburuak egon zeuden eta bidezko Zuzendaritza Planen arabera zehaztuta zeuden eta horiei buruzko dokumentuak hala Suhiltzaileetan nola Zuzendaritza Kontseiluko Idazkaritzan egonen dira. Helburu horiek aldarazi, osatu eta biderkatu ere egin ziren ekitaldian zehar; horien burutzapenaren jarraipena hamabostero egiten zuen partzuergoburuak eta Partzuergoaren Zuzendaritzako Kontseiluaren bilera guztietan erakusten ziren.

5.- (6. eta 7. orrialdeak, III.2. Mugak, d) atala). Apirilean berariazko jardunaldi batzuk antolatu ziren Iruñean beste Partzuergo batzuekin erkatzeko. Uste dut antolatzailea Barneko Zuzendaritza Nagusia izan zela eta zati batean Partzuergoko bitartekoekin finantzatu zirela, baina azken datu hori ezin dut zehaztu. Azterlan erkatzaileak egon behar dute.

6.- (8. orrialdea. Ondarearen egoeraren isla 1996ko abenduaren 31n). Esan behar da aurreko ekitaldietan ere ez zela egin eta zaila zela egitea ez zegoelako bitarteko material edo giza baliabide nahikorik.

7.- (8. orrialdea. Legezkotasun oinarria betetzea). Esan behar da zein den egin diren kudeaketen osoarekiko portzentaia. Gertatzen ahal da akatsak egotea baina ez lerroaldearen hitzez hitzezko irakurketan ematen duena, unean uneko kasuren batean baizik.

8.- (8. orrialdea. Eraginkortasun, egokitzapen eta ekonomia). Datudun aurreko ekitaldiekin erkatuta analitika egin beharko zen. Plan Zuzentzailearen aholkuei dagokienean, horrelakotzat jo behar dira, ez gidalerrotzat, horren azterketa sakona egiterakoan eta horiek Europako eredu aurreratuagoekin erkatzerakoan kostua-zerbitzua-biztanleria eta baita profesionalak-bolondresak, etab. erlazioan dagoen jauzia antzeman daitekeelako.

9.- (9. orrialdea. a) Antolakuntza). Zehatzmehatz idatzirik zeuden helburuak ziren, epe motz eta ertainera ezarritakoak, horiek eskuratzeko bidezko estrategiak eta guzti.

10.- (9. orrialdea. b) Kudeaketa). Lastima izan da behin-behineko txostena egin aurretik emateko aukerarik ez izatea. Hori gora-behera, lerroaldea horretan baieztatu denarekin bat nator.

11.- (12. orrialdea. VI.I. 1996ko Aurrekontuko Likidazioa). Sarreretan Nafarroarako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak Suhiltzaileei 50 milioi baino gehiagoko kopurua esleitzea falta da. Zuzenean Ogasunera doaz nahiz eta, kontzeptuaren arabera, uste dut Suhiltzaileetan ingresatu beharrekoak direla.

12.- (12. orrialdea. VI.2. Antolakuntza eta alderdi orokorrak, a)). Oso argi frogatzen du arestian langile gaitasundun eta prestatuen mentsari buruz adierazi dena.

13.- (13. orrialdea. Lerroaldea: “...batera). Partzuergoaren Estatutuetan ezarri zen egituran aldaketa egin zen eta, gai horretan adituak diren espezialisten arabera, hori Partzuergoko Administrazioetako Gobernuko Batzordeek aldarazpen horri ekiteko manuzko akordiorik hartu gabe egin zen.

14.- (13. orrialdea. c) atala). Ez daude idatzita baina argi dago egon daudela, edo egon zirela.

15.- (13. orrialdea. e) atala). Orduan artean jasotzeke zegoen Nafarroako Gobernuak egin zuen ondasunen inbentarioa. Ez zegoen lan horri era egokian ekiteko bitartekorik. Aralarrera joan ondoren egitea aurreikusita zegoen.

16.- (14. orrialdea. Organigrama). Adierazi behar da egitura bizia zela, zerbitzuak behar

zituen beharrizanei egokitzeko eta planteatzen ziren helburuei egokitzeko gai zena. Izan ere aldarazpena egitea aurreikusita zegoen baina ez da burutu.

17.- (15. orrialdea. g) atala). Adierazi behar da nik bete nuen zuzendaritzaren helbururik behinena, eskuratu behar zen lehenbiziko helburua, lanerako giro egokia berreskuratzea zela, nik jarauntsi nuena benetan penagarria zelako. 96ko ekitaldian horretarako "zimentuak" eraikitzeko fasean geunden eta gero, horiek egin ondoren, eraikinarekin jarraitu behar zen. Horiek ziren ezarrita zeuden xedeak.

18.- (16. orrialdea. b) Lerroaldea: "Mozkinak egotea...). Hemen azaldu den arazoa ezagutzen zuen Zuzendaritza Taldeak, behin baino gehiagotan aztertuta zegoen eta konpontzeko estrategia ezarrita zegoen. Hori hala helburuen zerrendan nola sindikatuetako ordezkariekin lau urterako sinatutako Akordioen negoziaketarako bileretako aktetan edo Hitzarmen horren jarraipenerako batzorde baterakoien aktetan aurkitzen ahal da.

19.- (16. orrialdea. b) Lerroaldea: "Aurreko koadrotik...). Aurreko lerroaldean adierazi dudana esan dezaket hemen ere.

20.- (17. orrialdea. c) Nomina). Azpimarratu diren lehenbiziko lau koadroak:

• Langileriaren Erregistro Orokorra eta Langileen Administrazioko Espedienteei dagokienean, esan behar da idatziz ere eskatu zitzaizkiola Funtzio Publikoari (idazkiak Suhiltzaileen artxiboan egon behar du); eta egoera benetan arraroa gertatu zen: azken oposizioan sartu zirenen 36 pertsonen espedienteak Suhiltzaileetara igorri zituzten eta ez zituzten gainerakoak bidaltzen.

• Beti era egokian bidezkotuta ez zeuden ordainsari aldakor bakarrak Antonio Jericó sarjentuaren menpeko langileenak ziren, eta hor gertatzen ziren laneko gatazkarik gehienak; sarjentu horren kudeaketa hurbiletik jarraitzen zen eta behin baino gehiagotan ahozko zentzarazpenak jasota zegoen. Formako zehapen espedientea lan-gatazka sortzeko baino ez zen izanen eta agian hori zen nahi zutena. Dena dela, Zerbitzu Teknikoko buruak aipatu diren ordainsari aldakor horiek kontrolatzen zituen.

• Errenta aitorpenetako ordainsarien urteko laburpenak egiten ziren. Suhiltzaileetan daude.

21.- (17. orrialdea. c). Udako kanpainako kontratatzioa). Sindikatuetako ordezkariekin sinatu ziren Akordioen negoziaketen aktak berrikusi behar dira, baita Akordioa bera ere, kontratatzeko zerrendak egiteko formula lau urterako zela ikusteko eta aurretiaz Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren onespena jaso zuela, Funtzio Publikoaren Antolamendurako Zerbitzuko Zuzendariak, Gregorio Eguilaz jaunarena alegia; pertsona hori negoziazio mahaian zegoen eta Suhiltzaileen Partzuergoko Zuzendaritza kontseiluko mahaikidea zen.

22.- (18. orrialdea. Aholkuak). Arestian ere adierazi den bezala, horiek guztiak Zuzendaritza eta Kudeaketa Taldearen helburuak ziren.

23.- (18. orrialdea. VI.4. Sarrerak. a) atala, 2. lerroaldea). Okerreko interpretazioa egin daiteke eta uste dut beharrezkoa dela idazkuntza aldatzea, ematen duelako 30 milioi desagertu egin direla. Esaldi horrek prentsako izenburu maltzurra ekar dezake, nahiz eta gero letra txikian gauzak argitu.

24.- (18. orrialdea. VI.4. b) atala, 2. lerroaldea). Beste behin ere "langilerik eza" errepika daiteke, eta honekin batera debekatuta zegoela Pertsonaletik N.A.N. bidez informaziorik eskuratzea edota Nafarroako Gobernuko Agentzia Betearazleak Suhiltzaileen erreklamazioak kudeatzeko eman zituen ezezko erantzunak. Hori guztia Partzuergoan dago islatuta.

25.- (19. orrialdea. VI.5. a) Aralar parkeko Obrak. Lerroaldea: "Obra hasi zen...). Agindu eta kontraginduen erantzukizuna "zuzendaritzako talde berriak sartu dituen aldaketei" esleitzea oker egin da, nahiz eta gero "dirudienez" hitzarekin apaindu. Zuzendaritza Kontseiluan, Partzuergoan eta Kontuhartzailetzan agiriak daude eta horietan, gehienetan, aldaketa horien inguruabarrak azaltzen dira. Nik ordeztu nuen zuzendariaren aginduagatik izan zen, eginda zegoen obra errausteko agindu baitzuen, atseden tokiak kenduz alegia (logelak) eta horrek sindikatuetako ordezkariekin zegoen gatazkaren gorengo maila sortarazi zuen. Sindikatuekin, Zerbitzu Teknikoetako arduradunekin eta Suhiltzaileen eta Barne Saileko teknikariekin arazoa aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta gero Zuzendaritza Kontseiluan eta abarrean bidezkotu ondoren, hau da, adostasunean oinarrituta, obren proiektuaren planteamendu berria egin zen, batez ere eragiketen alorreko langileentzako esparruarena, hasierakoa bezalakoa alegia. Mereziko luke aipatu diren dokumentu horiek berrikustea, arestian aipatu diren organo horietan egonen baitira, gero balorazio edo iritzi zehatza emateko.

26.- (19. orrialdea. VI.5. a) Lerroaldea: "Halaber, ez da sartu...). Partzuergoan sartu nintzenean obrako teknikari koordinatzailea Félix Esparza jauna zen, suhiltzaileetako ofiziala. Nik ez dakit horren izendapena nola egin zen. Ordeztu egin

zuten arloan ez zuelako esperientziarik eta Barneko Teknikaria den Pedro Recarte Gaztambide jauna jarri zuten. Seguruenik ez dago izendapen horiei dagokien akordiorik baina obrako bisitaldien aktak eta beste agiri batzuk berrikusiz froga daiteke nork jarduten zuen Suhiltzaileen edo Administrazioaren eskuordetzan. Zehatzago, Recarte jaunak hala obra hauen nola Nafarroako Suhiltzaileen beste obra batzuk zuzendu zituen.

27.- (19. orrialdea. VI.5. a) Lerroaldea: “Espedientea tramitatu da...). Aipatu den aldarazpenen espedienteak, “agindu eta kontraginduengatiko” kostuak ezezik, proiektuaren akatsak eta okerrak zuzentzeagatiko, aldarazpen estetikoengatiko eta beste aldaketa batzuengatiko prezioak agertzen dituela adierazi behar da. Urrats horien guztien kudeaketa obrako teknikari koordinatzailea zen Pedro Recarte jaunak egin eta jarraitu zuen, eta hori frogatu egin daiteke. Obren eta proiektuaren gasturik handiena, nik gogoratzen dudanaren arabera, kalteordain bezala onetsi behar izan zen.

28.- (20. orrialdea. Lerroaldea: “...gertutzeko unera arte...). Uste dut obrengatik ordaintzeke zegoen zenbatekoa, gaitasuna zuen zuzendaritzak aurkeztu zuen likidazioaren arabera, aipatu diren 27,6 milioi pezeta horiek baino askoz gutxiago izan zen. Halaber, zabaldu ziren epeak ere ez ziren bete.

29.- (20. orrialdea. Lerroaldea: “Inguruabar horixek...). Aipatu diren txosten juridiko eta kontuhartzailetzako txostenen artean “agindu eta kontraginduengatiko” aldarazpenen arrazoiak izan ziren inguruabarren arrazoiak islatuko dituzten dokumentuetariko batzuk egon behar dute.

30.- (20 eta 21. orrialdeak. b) Landa esparrurako punpa astuna eskuratzea). Gerta daiteke baldintzen pleguen klausula bat betetzerakoan fiskalizazio akats bat izatea. Arraroa da alegaziorik ez egotea eskaintza ekonomikoak ireki ziren ekintzan bertan eta gainerako lizitatzaileek, edo kontuhartzaileak edo legelariak edo, oro har, kontratazio mahaia eratzen genuen artetik beste inork alegaziorik ez egitea; akats bat. Beste alde batetik, kontratazio lehiaketen pleguetan irizpide guztien balorazioa adierazten zen, edo adierazteko ahaleginak egiten ziren, batez ere “prezioa”: uste dut hau bezalako zerbait zela: “... egin diren eskaintzen batez-bestekoa ken %10, gehieneko puntuazioaren baliokidea...”, eta hori inoiz kontuhartzailearekin era komentatuta zegoen. Enpresek ulertzen dute.

31.- (21. orrialdea. c) Altzariak. Takilak eskuratzea). “Prezioa” irizpidearen balorazioari dagokionean, baita baxa ausartegiari dagokionean ere, aurreko idazatirako adierazi dena esan daiteke.

32.- (22. orrialdea. VI.7. Plan Zuzentzailearen jarraipena). Arestian ere adierazi dudana errepikatzeaz gain, badirudi komeni dela beste behin ere proiektuaren oinarriak jartzen eta b) atalean adierazi diren helburuetako batzuk eraikitzen ari ginela esatea, hala nola, mendiko iraunkorrak eta urpekoak, promozio berriekin hurrenez hurren parkeetan gutxieneko zuzkidura ezartzea, prestakuntza iraunkorra, etab.

33.- (23. orrialdea. c) atala). Europako ratioa, hau da, suhiltzaile profesional bat 1.000 biztanleko, ez da egia. Babes Zibileko Zerbitzuaren azterlan batean kontrakoa frogatzen zen. Nahiko da Frantzia, Italia, Alemania eta abarreko egoera ikustea. Argudio horrek nahasketa sortzen du eta, nolabait, bidezkotu ezina dena bidezkotzera garamatza.

Halaber, Zuzendaritza Planean Partzuergoaren figurarekin aurrera egiteko bidezkoketa irakurtzeak merezi du printzipioz kontrakoa bidezkotzeko idatzi zela ulertzeko.

Zuzendaritza Planetik at eskuratu ziren errealizazio eta helburuen jarraipena egin daiteke, baita Zuzendaritza Batzordeak Partzuergoko zuzendariari ezarri zizkion gidalerroetatik at eskuratu zirenena ere. Argi dago delako plan horretan azaldu direnetik urrun daudela, nahiz eta bertan definitzen den organotik etorri: Zuzendaritza Kontseilutik.

Hori guztia gora-behera, adibidez, inguru osoan 3 solairutik (15 edo 16 metro) gorako eraikinik ez duen esparruan Parkean 30 metroko altuera duen autoeskala bat (kamioi eskailera) instalatzeko erabakia beti jo daiteke erokeriatzat, batez ere elementu horrek 60 edo 80 milioi pezeta balio dituela eta horren mantenimenduaren kostua prezio horrekin bat datorrela kontuan hartuta, eta hori horrela da eman diren argudioak gora-behera, eta, jakina, Europan ezin da horrelako erreferentziarik inon aurkitu.

34.- (24. orrialdea. Azken lerroaldea). Bat nator, oso osorik, dokumetuan azaltzen den azken iritziarekin nahiz eta nik, gogorrago joz, egutegi errealistagoaz hitz egin ezezik, uste dut aurrekontu, plantila eta ekipamendu errealistagoak eta zentzuzkoagoak gehitu behar direla. Gure ekonomia eta benetako errealitatei egokituta daudenak.

Nire asmoa ekarpen hau gure Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa hobetzeko izatea da.

Edozer behar baduzu zure esanetara naukazu.

Agur.

Iruñean, 1997ko ekainaren 23an

Sin.: Javier Sebastián Romero

**H saila:**
**BESTELAKO TESTU ARAUEMAILEAK**

# 159/1998 Foru Dekretua, maiatzaren 4koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

*OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1998ko ekainaren 5ean egindako bileran, erabaki zuen 159/1998 Foru Dekretua, maiatzaren 4koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, berrestea. Dekretu hori 1998ko maiatzaren 22ko 61 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 1998ko maiatzaren 27ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**I Saila:**
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

# 1998ko otsailean egindako bilerak

### MAHAIA

5 eta 12an.

### MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3,10, 17 eta 24an.

### OSOKO BILKURA

25ean:

– Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin bat egiteko Adierazpen Instituzionala berrestea.

– Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoarekiko emendakina, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen urtarrilaren 19ko 5/1998 Foru Dekretua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Martín Landa Marco jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak azaldu dezan zein neurri hartzen ari den Barne Produktu Gordinaren hazkundea lanpostu finkoen areagotze eta langabeziaren gutxitze bihur dadin.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kreditu osagarri bat eman dezan abeltzainek IPARLATi eman beharreko ekarpenei erantzuteko.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat aurkez dezan testuliburuak dohainik izateak suposatuko lukeen kostuari buruz.

– Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen jarraipenari buruzko galdera, Martín Landa Marco jaunak aurkeztua.

### OSASUN BATZORDEA

3an:

– Lan bilera. Bertan, CEIMSA Electromedicina, S.L.ko zuzendari Crespo Martínez jaunak oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentilazio mekaniko, loaren apnea sindromerako terapia eta bularreko haurraren bat-bateko heriotzari aurrea hartzeko terapia zerbitzuaren berri emango du.

5ean:

– Osasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentilazio mekaniko, loaren apnea sindromerako terapia eta bularreko haurraren bat-bateko heriotzari aurrea hartzeko terapia zerbitzuaren kontratazioaren berri eman dezan.

26an:

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Farmazi Arretari buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezan.

– Osasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, botiketan aurrezteagatik sendagileak saritzeko borondateari buruz eta botika batzuk Gizarte Segurantzatik kanpo uzteak izanen dituen ondoriei buruz hitz egin dezan.

### FORU ARAUBIDE BATZORDEA

3an:

– Lehendakari kargua hautatzea.

– Idazkari kargua hautatzea.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari komunikazio bat igor diezaion gure Komunitateko egoera politikoari buruzko diagnostikoa emanez.

### EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

4an:

– Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, KPIk gure Komunitatean izan duen desbideratzearen berri emateko.

### LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

5ean:

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra eta Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeek aurkeztutako mozioak, Estatu Batuak Iraken eskuhartzeari buruzkoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

### LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

6an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, 1997-2007 Ehizaren Plan Estrategikoaren berri emateko.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, saien portaerari buruz jaso diren azterlanen berri emateko.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, saien portaeraren jarraipenaren berri emateko.

13an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Urbasa-Andia Natur Parkearen egoeraren berri eman dezan.

20an eta 23an:

– Hondakin Berezien Plan Kudeatzaileari aurkeztu zaizkion proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

### NAFARROAKO UNIBERTSITATEZ BESTEKO HEZKUNTZA-SISTEMA AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA

10ean:

– Batzordeburuak egindako kudeaketen berri emango du.

– Batzordeak lorturiko datuak bildu eta aztertzea, eta agerraldiak finkatzea.

### HERRILAN ETA AZPIEGITURAK BATZORDEA

10ean:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak kablearen sektore estrategikoaren bilakaeraren berri eman dezan.

17an:

– Lan bilera. Bertan, Iruñerriko Mankomunitateko ordezkariek Iruñerriko bidaiarien lineako garraioaren berri emango dute.

24an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, obra kontratuetan erabili behar diren esleipen-prozedura eta -moduen berri eman dezan.

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, 1997an egindako kontratazioen berri eman dezan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa ezatabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da belarri bat eraiki dezan N-121 errepideko gasolindegiaren ondoan, Tafallako irteeraren parean.

### INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

11n:

– Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariarekin izandako bilera, PONSAL enpresaren 1997ko emaitzen berri izateko.

27an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, gas instalazioen azterketen berri eman dezan.

**HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**

11n:

– Lehendakari kargua hautatzea.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Batxilergoak eta Lanbide Heziketa berria ezarri aurreko prozesuaren beri eman dezan.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Beteluko Ikastetxe Publikoaren aurka tratu txarrak direlaeta dagoen salaketaren berri eman dezan.

19an:

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, ordezko gizarte-prestazioa ikastetxeetan betetzearen berri eman dezan.

**NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA MENDI BATZORDEA**

12an:

– Lan bilera. Bertan, Euskal Herriko Nekazarien Elkartea (EHNE) nekazaritza sindikatuaren ordezkaritzak nekazaritza-erakundeentzako dirulaguntzen banaketatik kanpo geratu izanaren berri emango du.

17an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, nekazaritza sindikatuentzako dirulaguntzen banaketaren berri eman dezan.

**GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA**

12an:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Burlatako Emakumeentzako Harrera Etxea Nafarroako Emakumearen Institutuari lagatzearen berri eman dezan.

18an:

– Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Iruñeko espetxe berriaren kokapenaren berri eman dezan.

– Martín Landa Marco jaunak (Askotarikoa) aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarteratzeari buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezan.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen berri bat negoziatu dezan Justizia Ministerioarekin ordezko gizarte-prestazioari atxikiriko jarduerei buruz.

**TRIBUTUEN ERREFORMA AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA**

19an:

– Nafarroako Gobernuak eta kontsultaturiko adituek bidalitako txostenak aurkeztea eta Lan Plangintzan ezarritako jarduketak zehaztea.

## 1998ko otsailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

**2an:**

– Eguesibarreko Udalaren idazkia. Harekin batera, Estatuko fiskal nagusia eta Entzutegi Nazionaleko fiskal buruaren kargu-uzteei buruzko Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Universidad Complutense-ren idazkia. Horren bitartez, Alvaro Marchesi jaunak baietza ematen dio Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Bereziarekin lan egiteko proposamenari.

– Fotanar (Guadalajara) herriko Udaleko alkatearen idazkia. Horren bidez eskatzen du Mendebaldeko Sáharan erreferenduma egitearen aldeko lankidetzan aritzea.

– Nafarroako Gobernuak bidalitako idazkia. Horren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen urtarrilaren 19ko 5/1998 Foru Dekretua bidaltzen da.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamenta-

ri andreak Vianako Printzea Erakundeari Lesakako San Martín de Tour eta Añorbeko La Asunción elizetako erretaulekin egindako zaharberritze-lanei buruz eskatutako txosten teknikoa.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentariaren idazkia. Horren bidez, Herrilan Kontseilariaren agerraldia eskatzen du, Nafarroako Gobernuak eta Radio Televisión Españolak Nafarroako emisio ordutegia zabaltzeko sinatuko duten lankidetza hitzarmenaren berri eman dezan.

**3an:**

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Hondakin Berezien Kudeaketa Planari buruz aurkezturiko erabaki proposamena.

– Sahara Bakea Parlamentuen arteko Taldeak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrea talde horretako koordinatzaile izendatzen da.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ahoz erantzuteko egin duen galdera, Lan Arriskuen Prebentziorako Legearen jarraipenari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Nekazaritza Kontseilariaren agerraldia eskatzen duena, txerrien izurritearen berri eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, Eraikuntzarako Lanbide Fundazioaren ordezkarien agerraldia eskatzen du, heziketa jarraiaren eta laneko heziketaren alorretan diseinaturiko kudeaketa programaren berri eman dezaten.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 24. artikulua aldatzeari buruz.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Lanbidea sortzeari buruz dagoen informazio guztia eskatzen du.

– Nafarroako Hezkuntza Zentroen Federazioaren idazkia. Horren bidez, baiezkoa ematen die Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian parte hartzeko gonbiteari.

– Francisca Catalán Fabo eta María José Pérez de Eulate Urrea Foru Parlamentari andreen galdera, Tafallako Osasun Etxearen ginekologiako laguntzari buruz.

– Javier Navallas Rebolé jaunaren idazkia, Hezkuntza eta Kultura Departamentukoa. Horren bidez, Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian lan egiteko egin zitzaion eskaerari erantzuten dio.

**4an:**

– Jesús Ascunce Elizagaren (Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Teknikokoa) idazkia. Horren bidez, baiezkoa ematen dio Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian lan egiteko egin zitzaion eskaerari.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez, Magnesitas enpresako jaulkipen kutsakorrei buruz idatziz erantzuteko egin zuen galdera ahozko galdera bihurtzeko eskatzen du.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariaren galdera, zaharrentzako egoitza Betelun jartzeko egin den esleipenari buruz.

– Mugarik Gabe erakundearen idazkia. Horren bidez Colonbian PBI laguntzeko sarea aktibatzeko parte hartzea eskatzen dute.

**5ean:**

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldearen idazkia. Horren bidez informazioa eskatzen da Potasas de Subiza, S.A. enpresak eta Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.-k POSUSAren industri jarduerak kalteturiko esparruak leheneratzeko sinatu duten hitzarmenari buruz.

– Bolondres Laneko Elkarteen Batzordearen idazkia. Horren bidez agerraldi bat eskatzen dute Bolondres lanari buruzko Foru Legeari buruz duten iritzia azaltzeko.

– Aratzuriko kontzejuak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, bilera bat eskatzen dute hondakin toxiko bereziak tratatzeko planta bat instalatzeari buruz duten iritzia azaltzeko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, erantzuna ematen zaio Pedro María Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak GESNA enpresari buruz -Infanta Elena zentroaren lehengo kudeatzailea- egindako galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Ekialdeko Ingurubidean istripuak gutxitzeko emanen diren urratsei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak adimen ezintasunak dituzten pertsonei laguntzeko diruz lagundutako lanerako zentroek dituzten baliabideei buruz egin zuen galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua atzera bidaltzeko erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, lan bilera bat eskatzen da Industri Batzordeko bozeramaileekin, zenbait gairi buruz -beste batzuen artean Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruz- hitz egiteko.

– Senatuak bidalitako idazkia. Horrekin batera, Biltzarreko Osoko Bilkurak 1998ko otsailetik ekainera eginen dituen jardueren egutegia.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentariaren idazkia. Horren bidez, Gobernuko Lehendakariaren agerraldia eskatzen du Nafarroako Aurrezki Kutxa beste finantza-entitateren batekin batzeko aukeraren berri eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, Ingurugiro Kontseilariaren agerraldia eskatzen da, kontrapasako ehiza baimentzearen inguruan gaur egun dagoen egoeraren berri eman dezan.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bitartez, informazioa eskatzen du 1998-2-3an Iruñea-Baiona ardatzaren inguruan sinatu zen hitzarmenari buruz.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, Herrilan eta Azpiegitura Kontseilariaren agerraldia eskatzen da, Iruña-Baiona ardatza bultzatzeko sinatu den hitzarmenaren berri eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Reina Sofía Ospitaleko itxaron zerrendei buruz egindako galdera.

**6an:**

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoarekiko emendakina.

– María Jesús Martínez Arce andrearen idazkia. Horrekin batera, bere lan bat aurkezten du Parlamentua 1997 sarirako.

– Nafarroako Hezkuntza eta Kudeaketarako Elkartearen idazkia, Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian parte hartzeko egin zitzaien gonbiteari buruzkoa.

– Marcillako Udalaren idazkia. Horrekin batera Osoko Bilkurak Iruñeko espetxea birmoldatzeari buruz hartutako erabakia.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horrekin batera, Osasun Batzordeak otsailaren 5ean egin zuen bilkuraren transkripzioa ahal den eta azkarren egin dadin eskatzen du.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Horrekin batera, 1998 urterako Kontuen Ganbararen Fiskalizazio Programa onesten duen Lehendakariaren erabakia.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bitartez, eskaera egiten da Sahararako Bakea Parlamentuen arteko Taldeek Bartzelonan eginen duten bilerara joateko.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bitartez, informazioa ematen da Sahararako Bakea Parlamentuen arteko Taldeko kideek Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara egindako bisitaren berri ematen du.

– Begoña Errazti Esnal andreak Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako emendakinak.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez, Bolondres Laneko Elkarteen Lan Batzordearen lan bilera bat eskatzen da, Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari buruz duten iritzia azaldu dezaten.

– Askapena taldearen idazkia. Horren bitartez, Patricio Fernando Ortiz Montenegro Txileko hiritarraren egoera salatu eta Suitzako agintarien aurrean bitartekaritza egitea eskatzen da, ez dezaten Txilera bidali.

– Comisiones Obreras sindikatuaren idazkia. Horren bitartez, baiezkoa ematen diote Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian parte hartzeko gonbiteari.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Zolinako hiri bioklimatikoa izenekoari buruz egindako galdera.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera Hondakin Berezien Planari buruzko dokumentazioa.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak Hondakin Berezien Planari buruz aurkezturiko erabaki proposamenak.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak parke eolikoak eraikitzeko idapidaketa-espedienteei buruz egindako galdera.

– Xotero Etxandi Foru Parlamentari jaunak Belateko tuneletako tartean izandako istripuei buruz egindako galdera.

**7an:**

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentari Taldeak Hondakin Berezien Plan Kudeatzaileari buruz aurkezturiko erabaki proposamenak.

**9an:**

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak Hondakin Berezien Plan Kudeatzaileari buruz aurkezturiko erabaki proposamenak.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinak.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinak.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak Hondakin Berezien Plan Kudeatzaileari buruz aurkezturiko erabaki proposamenak.

– Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideen Aretoaren idazkia. Horrekin batera, Mª Jesús Martínez Orduña andreak jarritako 1082/97 zk.ko administrazioarekiko errekurtsoari buruz Aretoak emandako ebazpen irmoa.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldearen idazkia. Horren bidez eskatzen da Kontuen Ganbarak oxigenoterapia eta etxez etxeko bestelako terapien prestaziorako CEIMSA Electromedicina, S.L. enpresarekin egindako kontratuari buruzko txostena egin dezan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Horren bitartez, Herrilan Kontseilariaren agerraldia eskatzen dute, Itoizko urtegiarekin zerikusia duten eraikuntza prozesuen berri eman dezan.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bitartez, informazioa eskatzen da Navarra de Medio Ambiente, S.A. enpresa publikoak Potasas de Subiza, S.A. enpresa publikoari Zolinako aintzirako lurrak etxebizitzak eraikitzeko erosi izanari buruz.

– Fermín Ciáurriz Gómez, Begoña Errazti Esnal eta Martín Landa Marco Foru Parlamentarien idazkia. Horren bidez, errekurtsoa aurkezten dute Askotariko Taldeko bulegoa bitan banatzeko egindako eskaerari Mahaiak emandako ezezkoaren aurka.

**10ean:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, indarreko aurrekontuko kontusailen arteko kreditu transferentzia egitea baimentzen duen Herrilan Kontseilariaren Foru Agindua.

– Agoizko Udalaren idazkia. Horrekin batera, Mendebaldeko Sáharan erreferendum garbi eta gardena egitea laguntzeko Adierazpen Instituzionalarekin Osoko Bilkura bat datorrelako erabakia.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bitartez, informazioa eskatzen da Iruña aldeko 1998 urterako hil ala biziko larrialdietako anbulantzien zerbitzua (SAMU-UCI) kontratatzeko esleipenaren espedienteari buruz.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren galdera. Tuterako Foruzaingoaren koartela eraikitzeko proiektua zein fasetan dagoen jakin nahi du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Corellako udalerrian garbiketa tunel bat instalatzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Zarrakazteluko Barbadako sakanean dagoen zabortegiari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Abaurrea eta Aezkoa aldeetan hotz eta elur bolada berriei aurre egiteko prestatu diten neurriei buruz egindako galderaren erantzuna.

**11n.**

– José María Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, Osasun Kontseilariaren agerraldia eskatzen du sendagaien fakturazioan sortzen den aurrezkiarekin Oinarrizko Osasun Laguntzako sendagileei sariak emateari buruz egin zituen adierazpenak azal ditzan:

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak etxebizitzak erosteko laguntzei buruzko arauak aldatzeari buruz egin duen galdera.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak lurzati antolamenduari buruzko zenbait espediente ebazteari buruz egindako galdera.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzarako Zentroetako basektomia-zerbitzuan dauden itxaron zerrendei buruz egindako galdera.

– Etxauriko Udalaren idazkia. Horrekin batera, Tindufeko saharararrentzako errefuxiatuen kanpamenduetara eginen den bidaia bultzatzeko erabakia.

– Senideak taldearen idazkia, euskal presoen egoera batzuk salatzen dituena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Enplegurako Zerbitzuari buruz Industri Kontseilariarekin egin behar zen bilera martxoaren 27ra arte atzeratzea eskatzen da.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuan euskara erabiltzeari buruz egindako galdera.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen da toki entitateek Nafarroako Gobernuarekin duten zorrari buruz.

**12an:**

– José María Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunaren idazkia, hain zuzen ere otsailaren 11ko 275 sarreradun agiria ordezteko. Horren bidez, Osasun Kontseilariaren agerraldia eskatzen da.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez, aditzera ematen du jakinarazpenetarako helbidea aldatu duela.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Aranguren eta Egues artean proiektatu den hiri bioklimatikoari buruz egindako galdera.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen da Izpegi eta Orbaitzeta artean Pirinioak zeharkatuko duen bide-ardatzaren bideragarritasunari buruzko azterlana kontratatzeko sinatu den hitzarmenari buruz.

– Hauteskundeetarako Araubide Orokorrerako ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulu aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko zenbait artikulu aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak zenbait osasun etxetako haurra/pediatra ratioari buruz egindako galdera.

– Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen araubidea araupetzeari buruz egindako galdera.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, Osasun Kontseilariaren agerraldia eskatzen du Gobernu zentralak Gizarte Segurantzatik zenbait sendagai kentzeko hartu dituen neurriek Nafarroan izanen duten eraginaren berri eman dezan.

– Mexikoko Enbaxadaren idazkia. Horrekin batera Mexikoko Acteal aldean eta Chiapasko Estatuan gertatutakoari buruzko dokumentazioa.

– Kontuen Ganbarako idazkia. Horrekin batera, Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako ondare historiko eta artistikoko ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharberritzeko aplikatzen dituen irizpide eta prozedurei buruzko txostena.

**13an:**

– Miguel López Gaspar jaunaren idazkia. Horren bidez, aholkua eskatzen du hauteskunde kanpainian prentsan agerturiko salaketa bati buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak hezkuntza politikaren aurka protestatzeko ikastetxe itunduetan ikasleak erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 1996 eta 1997 urteetako aldi baterako kontrata-

tuen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentilazio mekaniko, loaren apnea sindromerako terapia eta bularreko haurraren bat-bateko heriotzari aurrea hartzeko terapia zerbitzua CEIMSA Electromedicina, S.L. enpresarekin kontratatzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak errezetak euskaraz eta erdaraz ematearen aldeko ekimenari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroan jarriko den espetxe ereduari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak Etxabakoitz Iparreko osasun egoerari buruz eta Barañaingo Osasun Etxea gainezka egoteari buruz egindako galdera.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Espainiako Estatuaz kanpoko Nafar Bilguneei ematen zaizkien dirulaguntzei buruz Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Unibertsitate Publikorako bere egunean aurreikusi ziren hasierako titulazioen planari buruz María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ekonomi zuzendari nagusiaren eta Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiaren ebazpenak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren foru aginduak eta Nafarroako Gobernuaren erabakiak, hain zuzen ere abenduko zenbait aurrekontualdaketari buruz.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen da Beteluko Ikastetxe Publikoan maistra batek ikasle bati emandako tratu txarrak direla-eta Hezkuntza Departamentuko ikuskatzailearen txostenak dioenari buruz.

– Nafarroako Ekonomilarien Elkargoaren idazkia. Horrekin batera, tributuen erreformari buruzko azterlanaren txostena bidaltzen da, Batzorde Bereziak eskatuta.

**16an:**

– Román Felones Morrás jaunaren idazkia. Horrekin batera, bere lan bat aurkezten du Parlamentua 1997 sarirako.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez, jakinarazten du Saharari buruz Bartzelonan burutuko den Nazioarteko Bilkura atzeratu egin dela.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen galdera, Elkarkide eta Tasubinsa lanerako zentroei emandako dirulaguntzei buruz.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak batxilergo eta heziketa zikloen hezkuntza eskaintzari buruz egindako galdera.

– Galar-Espartzako Kontzejuaren idazkia, faxez bidalia. Horren bidez, bilera bat eskatzen da parlamentari talde guztiekin Olatz-Zubitzako meategian hondakin toxikoak biltzeari buruz.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez, Mahaiari eta Bozeramaileen Batzarrari Tindufeko bidaian izandako gora-beheren berri ematen die.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldearen idazkia. Horren bidez Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari emendakinak aurkezteko epea luzatzea eskatzen dute.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Bozeramailearen idazkia. Horren bidez eskatzen da lan bilera bat egitea Galarko Olatz, Zubitza eta Espartza Kontzejuetako ordezkariekin, Olatz-Zubitzako meategian hondakinetarako biltegi bat jartzeari buruz duten iritzia azal dezaten.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Bozeramailearen idazkia. Horren bidez, eskatzen du Landa Marco Foru Parlamentari jaunarentzako ordenadore bat jartzea.

**17an:**

– Derecho a Morir Dignamente Elkartearen idazkia. Horrekin batera Ramón Sanpedroren suizidioa dela-eta nork bere burua erruduntzat jotzeko sinaduren orriak.

– Galar Udalaren idazkia. Horren bidez, POSUSAn jartzea aurreikusi den Segurtasuneko Lurrazpiko Biltegiaren aurkako jarrera agertzen dute.

– Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez Industri Kontseila-

riaren agerraldia eskatzen du Nafarroako Enplegurako Zerbitzuaren berri eman dezan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Ezkaurre mendiko oihan antolamenduari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak Abaurregainen landatzeko patata bildu, eraldatu eta merkaturatzeko biltegi bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak abiadura handiko trenerako proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Nafarroako zortzi irrati baimen berri esleitzeko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak egindako baldintzen pleguari buruzko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa: Telekomunikazioen Plan Zuzentzaileari buruz Herrilan Departamentuak egindako laburpena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak alderdi hondatuen eta zabortegien inbentarioari buruz eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak Covitecma eta Emgrisa Madrilgo enpresek buruturiko txostenen ondorioei buruz eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Galar Zendeako Getzeko gesal putzuak berreskuratzeko proiektuari buruz eskatutako informazioa.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldearen idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen dute FITEX, S.A.L. Nueva Navarra S.A. bihurtzeko prozesuko espedienteari buruz.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak Jakako errepidea, Noaingo zeharkalearen parean, egokitzeko lanen egoerari buruz egindako galdera.

– Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Marcillako gaztelua ikusteko programatutako bisita zabaldu eta Artaxonako Harresiak ere bisitatzea eskatzen da.

– Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak siloak eskualdatu eta hirigintza planetan haien katalogazioa aldatzeari buruz egindako galdera.

– Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza Ganbaren esparruan eskualdatutako langileek betetzen dituzten eginkizunei buruz egindako galdera.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Magnesitas enpresako isuri kutsakorrei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako abeltzaintza kuotaren gehikuntzak ekarriko dituen ondorioei buruz egindako galdera.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Errioxa jatorrizko izendapenarekin eta haren Kontseilu Erregulatzailearekin sinaturiko lankidetza hitzarmeneko proiektuei buruz egindako galdera.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak etxebizitza eta zaharberritzea kontusailen aurrekontu-betetzeari buruz egindako galdera.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen da kontzeptu guztietan Foru Ogasunak 1997an izandako dirubilketari buruz.

**18an:**

– Catalunyako Parlament-eko President-aren idazkia. Horren bitartez, jakitera ematen du Parlamentuen arteko Taldeek Mendebaldeko Saharako Bakearen eta Askatasunaren alde eginen duten Biltzarra hemendik gutxira eginen dela.

– Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldearen mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta gaitzespena adierazten ditu Estatu Batuek Iraki eraso egiteko hartu duen erabakiarengatik.

– Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunaren mozioa. Horren bidez, Bertiz biosferaren erreserba deklaratzea bultzatu nahi da.

**19an:**

– Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak Corellan garbitegi industrial bat jartzeari buruz egindako galdera.

– Marcillako Udalaren idazkia. Horrekin batera, Osoko Bilkurak hartu duen erabakia igortzen da.

Erabaki horren arabera, Estatuko Gobernua premiatzen da Cardenal eta Fungairiño jaunak, bata Estatuko Fiskal Nagusia, bestea Auzitegi Nazionaleko Fiskalburua, beren karguetatik kentzeko.

– Hezkuntza eta Lan Integrazioaren aldeko Elkartearen idazkia. Horren bidez, eskatzen dute Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian agertzea.

– Mungiako Larramendi Ikastolaren idazkia. Horren bitartez, laguntza ekonomikoa eskatzen da Bizkaiko ikastolen aurtengo festarako.

– Axel Baumgart jaunaren idazkia. Horrekin batera, Hezkuntza Departamentuaren eta Beteluko Ikastetxe Publikoko zuzendariaren aurka aurkeztutako salaketari buruzko informazioa.

– Jokin Larrinaga Renteria jaunaren idazkia. Horren bidez, eskatzen du Nafarroako Parlamentuko dokumentuen gaztelaniatik euskarara itzultzeko zerbitzuaren kontratazioko eskaintzan parte hartzea.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Lurzorua eta etxebizitza erosi eta sustatzea izeneko kontusailaren aurrekontu-betetze mailari buruz egindako galdera.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez eskatzen du José María Aranaz jauna libre sartu ahal izatea Askotariko Parlamentari Taldearen bulegora.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Europako Batasunak Nafarroari departamentuen eta programen arabera eman dizkion laguntzei buruz egindako galdera.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari Foruzaingoaren prestakuntzaren kostuaz egindako galdera.

– ”Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak Altsasu-Etxegarate tartean N-1 errepidean dauden seinalei buruz egindako galdera.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak N-232 errepideko Castejón-Tutera tarteko trafikoari buruz egindako galdera.

**20an:**

– Gizarte arloko Epaitegiko idazkia. Horren bidez, egiaztagiri bat eskatzen da Jesús Aizpún Tuero Foru Diputatua baden edo izan den esaten duena.

– Bitez S.L. Itzulpen Zerbitzuak enpresaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko agiriak gaztelaniatik euskarara itzultzeko zerbitzu baten kontratazioko eskaintzan parte hartzea eskatzen da.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Horrekin batera, Osasun arloko ikuskaritza, prestazioak eta itunak (1996) fiskalizazio txostena.

– Garraldako Udalaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuarekin izandako kudeaketen dokumentazioa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Endekaturiko inguruak leheneratzea eta ingurugiro eraginak zuzentzea 90037-1 kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galdera.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro auditoretzak kontusailaren betetzemailari buruz egindako galdera.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak unibertsitate prestakuntzaren guztizko gastuari buruz egindako galdera.

– ”Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren progresibitatea murriztuaren aurka dagoela adierazten du.

– Xarelan Kulturgintza, S.L. enpresaren idazkia. Horren bidez, uko egiten diote Nafarroako Parlamentuko agiriak gaztelaniatik euskarara itzultzeko zerbitzuaren kontratazioko eskaintzan parte hartzeari.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bitartez, Askotariko Parlamentari Taldeko kide guztiek bulegoa erabili ahal izateko arrazoizko konponbideren bat eskatzen du.

– Centro de Comunicación Internacional, S.L. enpresaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko agiriak gaztelaniatik euskarara itzultzeko zerbitzu baten kontratazioko eskaintzan parte hartzea eskatzen da.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nazioarteko gatazkak elkarrizketaren bidez konpondu behar direla aldarrikatzen du eta Iraken aurka Estatu Batuek gauzatuko duten eskuhartze militarra gaitzesten du.

**21ean:**

– Senideak taldearen idazkia. Horren bidez eskatzen dute Giza Eskubideen Batzordeak aurkeztutako mozioa onartzea.

**23an:**

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez eskatzen du otsailaren 26 ostegunerako aurreikusita zegoen Ingurugiro Kontseilariaren agerraldia beranduagorako uztea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozio bati egindako emendakina. Mozio haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion.

– María Sagrario Ciordia Alvarez andrearen idazkia, Parlamentuaren zerbitzuko administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdian parte hartzeko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Vianako Printzea kontsultategiko Harrera Zerbitzuaren funtzionamenduari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak 1997an dirulaguntzaren bat jaso duten Nafarroako nekazari eta abeltzainen zerrendari buruz eskatu duen informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Karlismoarekin lotura duten balio historikoko materiala berreskuratzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Nafarroako RTVEren zentroaren programazio orduak zabaltzeko RTVE eta Nafarroako Gobernua sinatzekotan dauden hitzarmenari buruzko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako RTVEren zentroaren programazio orduak zabaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak Belateko tunelen tartean gertatu diren istripuei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako gasolindegietako erregai-horniduraren neurrien ikuskapen eta kontrolari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Nekazaritza sindikatuentzako dirulaguntza kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Zubitzako Potasas enpresaren meategi zaharrean gertatu diren lubiziei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak 1995 urtetik aurrera Berriozarko udalerrian VINSAk sustaturiko etxebizitzetako esleipen hartzaileei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentari Taldeak Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak UAGN eta EHNE sindikatuei emandako dirulaguntzekin lotura duten datuei buruz eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa, hain zuzen ere 1997ko nekazaritzako lanbide elkarteentzako dirulaguntzen deialdiari eta dirulaguntza horiek emateari buruzko espedientearen kopia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren langile-dotazioei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Artaxonako Udalaren idazkia. Horren bidez, Lehendakaria eta Hezkuntza Batzordea gonbidatzen dute Harresia bisitatzera etortzeko.

– Karrikiri elkartearen idazkia. Horren bidez eskatzen du Nafarroako Parlamentuko dokumentuen gaztelaniatik euskarara itzultzeko zerbitzuaren kontratazioko eskaintzan parte hartzea.

**24an**

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioari Sozialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak eginiko emendakina. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iparlateko abeltzainei

eman behar duten ekarpena ordaintzeko kreditu osagarri bat eman dezan.

– María Elena Martínez Cosgaya andrearen idazkia, Parlamentuaren zerbitzuko administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdian parte hartzeko.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari egindako emendakina.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egindako galdera. Horren bidez, ezagutu nahi ditu Agedna enpresaren grebak kalteturiko gutxitze psikikoko pertsonen arreta bermatzeko Gizarte Ongizate Departamentuak aurreikusi dituen neurriak.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Horrekin batera, Lehendakariaren Ebazpena, Kontuen Ganbararen 1998ko plantila organikoa eta 1997ko abenduaren 31n zeuden funtzionarioen zerrenda onesten dituena.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak medicamentazo izenarekin ezagutzen den Dekretuaren aplikazioa arbuiatzen du.

– Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruz Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egindako galdera.

– Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruzko galdera, Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina.

– Hidrocantábrico konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Castejónen eraikitzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Iberdrola konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Castejónen eraikitzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez Nekazaritza Kontseilariaren agerraldia eskatzen du, zerrien izurrite klasikoaren bilakaeraren berri eman dezan.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen du 400 megavatioko hasierako potentzia duen gasaren ziklo konbinatuko planta bat Castejónen instalatzeko Iberdrolak aurkeztu duen proiektu sektorialari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen du 400 megavatioko hasierako potentzia duen gasaren ziklo konbinatuko planta bat Castejónen instalatzeko Iberdrolak aurkeztu duen proiektu sektorialari buruz.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez, eskatzen du Bidean, Hezkuntza eta Lan Integrazioaren aldeko Elkartea eta Nafarroako Down Sindromerako Elkartea Nafarroako Unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian agertzea.

– N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat Tutera-Cintruénigo errepidearen N-160 eskualde errepidean, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Arga ibaiko arroan habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketen garapenari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ega ibaiko arroan habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketen garapenari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Urederra ibaiko arroan habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketen garapenari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Urederra ibaiko arroan buruturiko laginketa elektrikoei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro Zerbitzuak aurkezturiko ikuskapen-aktei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Toki Ogasunen Fondoaren hornidura eta banaketari buruzko Foru Legea aplikatzeak sorturiko emaitzei buruz, toki entitateen arabera, egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak departamentu eta maila ezberdinetan egin-

dako aparteko orduei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren 814/1994 eta 1310/1997 foru aginduen kopiei buruz eskaturiko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Ziordiko lurrazpiko pasabideari buruz eta Olaztiko lotuneari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak Ablitas-Tutera errepidea zabaltzeko obren hasieran izandako atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Horren bidez eskatzen du Giza Eskubideen Batzordeak Herrien Bakea eta Subiranotasunaren aldeko Mugimenduaren Lehendakaria Orlando Fundora jauna har dezan, Cubako egoera orokorrari buruzko ikuspegi bat eman dezan.

– Corts Valencines-etako President-aren idazkia. Horrekin batera, Diputatuen Kongresuko Kultura Batzordeak katalanaren batasunari buruz eta Estatuko gainerako hizkuntza koofizialen erabilerari buruz hartu duen erabakiaren aurkako ebazpena.

– Nafarroako Gorren Elkartearen idazkia. Horren bidez, Nafarroako unibertsitatez besteko hezkuntza sistema aztertzeko Batzorde Berezian parte hartzea eskatzen dute.

– ”Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen idazkia. Horren bidez, otsailaren 25eko Biltzarreko Osoko Bilkuraren gai zerrendatik 6. puntua, mozio bat, erretiratzen du. Mozio haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zuen Euskal Autonomi Erkidegoarekin hitzarmen berri bat gauzatzeko.

**25ean:**

– Begoña Zudaire Larrión andrearen idazkia,

Parlamentuaren zerbitzuko administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdian parte hartzeko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra eta “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeek aurkeztutako mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak sendagaiak finatziazio publikotik kanpo uztea abuiatzen du.

– Mozioa, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernua premiatzen du ez ditzan aplika Espainiako Gobernuak sendagai batzuk Osasun Publikotik kanpo uzteko hartu dituen neurriak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak zerbitzuak arratsaldez ematen dituzten osasun etxeei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Francisca Catalán Fabo eta María José Pérez de Eulate Urrea Foru Parlamentari andreek Tafallako osasun etxeko ginekologi laguntzari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak kontrapasari buruzko administrazio-espedientearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ultzama ibaiaren arroko habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketen garapenari buruzko galderaren erantzuna.

**26an:**

– Altsasuko Udalaren idazkia. Horrekin batera, 0,7 Batzordeari buruzko erabakia bidaltzen du.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoarekiko emendakina.

– Mozioa, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du medicamentazo izenarekin ezagutzen dena atzera bota dadin eskatzeko.

– ”Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, Nekazaritza Kontseilariaren agerraldia eskatzen du, herrilurretako bazkalekuak sortu eta hobetzeko dirulaguntzak emateko orduan jarraituriko irizpide eta arauen berri eman dezan.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen du Arangurengo zenbait unitatetako Arau Subsidiarioak aldatzeko espedienteari buruz.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen du Nekazaritza Politika Amanko-

munean ezarritako dirulaguntzetarako deialdietan parte hartzeko jarri diren baldintzei buruz.

– María Jesús Martínez de Lizarrondo Galañena andrearen idazkia, aldi baterako administrazio kontratupeko administrarien zerrendarako deialdian parte hartzeko.

– Fermín Ciáurriz Gómez jaunak Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinak.

– Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia. Horren bitartez, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Tributuen Erreforma aztertzeko Batzorde Bereziari bidalitako Nafarroako zergen benetako presio orokorrari buruz bidalitako txostena zabaltzea eskatzen du.

**27an:**

– Iñaki Miguéliz Garcés jaunaren idazkia, Parlamentuaren zerbitzuko administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdian parte hartzeko.

– Iñaki Miguéliz Garcés jaunaren idazkia, aldi baterako administrazio-kontratupeko itzultzaileen zerrendarako deialdian parte hartzeko.

– Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eginiko azterlan eta jarduerei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Mikel Aingeru García López de Sabando jaunaren idazkia, aldi baterako administrazio-kontratupeko itzultzaileen zerrendarako deialdian parte hartzeko.

– ”Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak Nafarroako lanbide elkarteei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinak, osoarekikoak eta partzialak.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldek Nafarroako lanbide elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinak.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak Nafarroako lanbide elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinak.

– Jesús Goñi Barro jaunaren idazkia. Horren bidez Parlamentuko Erregelamendua aldatzea eskatzen du, izan ere euskaraz idatzitako idazkiei euskaraz erantzun daitezen.

– Eugenio Simón Acosta jaunaren idazkia. Horren bidez, bere burua Tributu Erreforma aztertzeko Batzorde Bereziari eskaintzen dio.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egindako destino aldaketa eta lanpostuei buruz eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera,

Ingurugiro Zerbitzuak 1997tik Ziraukiko dermioan egin diren ikuskapenetako ikuskapen akta guztien kopiak, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak eskatu bezala.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Iruñean Kongresuetarako Jauregi bat eraikitzearen bideragarritasunari buruz Nafarroako Gobernuaren menpeko erakundeek egindako txostenei buruz Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera,

Nafarroatik kanpo Nafarroako Gobernuak edo haren sozietate publikoek dauzkaten ondasun higiezinen zerrendari edo ezaugarriei buruz Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Liburutegi Nagusia Santo Domingoko baratzetan kokatzeari buruz Nafarroako Gobernuaren menpeko erakundeek egindako txostenei buruz Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroan eta Foru Administrazioan enplegua sortu eta deusezteari buruz Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko osoarekiko emendakina.

– Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko emendakin partzialak.Nafarroako Gobernuaren idazkia, otsailaren 10eko Hezkuntza Erreformarako Batzordearen erabakiari buruz.

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 5.900 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 135 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 170 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta 12, 3

31002 IRUÑA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).

Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper ekologiko birziklatua